Higiezin inbertsioak produkzio kostuan baloratzen dira, eta higiezin horiek funtzionatzeko baldintzetan jarri aurretik sortzen diren finantza gastuak gastu handiago gisa aintzat hartzen dira —gastu horiek inbertsio hori egiteko zuzenean erabiltzen diren maileguei dagozkie—.

Aurrekoa gorabehera, higiezin inbertsioa Erakundeak berak egin ez duenean —hala nola Donostiako Udalak dohainik lagatako orubeen kasuan—, zentzuzko balioa erabiliko da, eta balio hori kalkulatu da higiezin inbertsioa eskuratu den egunean aditu independente batek egindako balorazioaren arabera.

Berritzearen, handitzearen edo hobetzearen ondoriozko kostuak ondasunaren balio handiago gisa txertatuko zaizkio aktiboari, betiere ondasunaren ahalmena eta produktibitatea handitzea edo balio bizitza luzatzea dakarren heinean; hortaz, ordezkaturako elementuen kontabilitate balioa kendu beharko da.

Konponketa eta mantentze gastuak erregistratzen dira gastu horiek egiten diren ekitaldiko emaitzen kargura.

Enpresak beretzat egiten dituen obra eta lanen ondorioz ekitaldian egindako gastuak dagozkion gastu kontuetan kargatzen dira. Abian den eraikuntzaren kontua eta orubeak egokitzearen kontua gastu horien zenbatekoarekin kargatzen dira, eta Erakundeak beretzat egindako lanak biltzen dituen sarreraren partidaren kontura ordaintzen dira. Era berean, abian diren sustapenei dagozkien finantza gastuak —gastu gisa egotzen direnak eta Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen ez dituenak— finantza sarrerako partida baten kontura ordainduta aktibatzen dira.

Erakundeak, 2007ko ekitaldira arte, ekitaldi hori barne, % 3ko amortizazio koefizientea aplikatu zuten eraikuntzei; ekitaldi horretatik aurrera, eta txosten tekniko batean oinarrituta, eraikuntzetarako 50 urteko balio bizitza ezarri zen, eta % 2an amortizatzen hasi zen —izatez, txosten horrek adierazten zuen eraikinen balio bizitza 50 edo 100 urte artekoa izan zitekeela, mantentze lan egokia eginda—. 2011n, Erakundeak % 1ean amortizatu zituen higiezinak, eta hurrengo ekitaldietan berriro amortizatu zituen % 2an.

Erakundeak % 2ko edo % 1eko amortizazio koefizienteak aplikatzen ditu, higiezinaren gainerako balio bizitza zein den kontuan hartu gabe, haren balio bizitza osoa 50 edo 100 urte dela jotzen den unetik aurrera.

Erakundeak balio bizitzako amortizazioaren 50 urteko irizpide bateratuari eutsi izan balio, amortizazio metatua 234.727,02 euro gehituko zen 2025eko abenduaren 31n.

2025eko eta 2024ko ekitaldietan, Erakundeak ez du balio narriaduraren ondoriozko zenbatekorik erregistratu.



4.4.- Errentamenduak

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentatutako ondasunaren jabetzak eta, funtsean, ondasunaren gaineko arrisku eta abantaila guztiek errentatzailearen esku egoten jarraitzen dute.

Erakundeak errentari gisa jarduten duenean, errentamendu gastuak linealki kargatzen dira galdu-irabazien kontura, akordioen eta kontratuaren bizitzaren arabera.

Errentamendu operatiboen ondoriozko ordainketak gastu gisa erregistratzen dira galdu-irabazien kontuan, sortzen direnean.

Erakundeak hirugarrenei alokatzen dizkien ibilgetuetan, errentamendu operatiboetatik eratorritako diru sarrerak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira, sortzen direnean. Kontratuari egotz dakizkioken zuzeneko kostuak errentan hartutako aktiboaren balio handien gisa sartzen dira, eta gastu gisa aitortzen dira kontratuaren epean, errentamenduko diru sarrerak aitortzeko erabilitako irizpide bera aplikatuta.

4.5.- Finantza tresnak

Erakundeak finantza tresnen kapituluan erregistratu ditu enpresa bateko finantza aktiboa sortzen duten kontratuak, baita, aldi berean, finantza pasiboa edo beste enpresa batean ondare tresna bat sortzen duten kontratuak ere. Horrenbestez, hauek joko dira finantza tresnatzat:

a) Finantza aktiboak:

- Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak;
- Merkataritza eragiketen ondoriozko kredituak: hainbat bezero eta zordun;
- Bestelako finantza aktiboak: hala nola, kreditu erakundeetarako gordailuak, langileentzako aurrerakinak eta kredituak, fidantza eta gordailu eratuak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare tresnen gainean eskatzen diren ordainketak.

b) Finantza pasiboak:

- Merkataritza eragiketen ondoriozko zorrak: hainbat hornitzaile eta hartzekodun.
- Kreditu erakundeekiko zorrak;
- Bestelako finantza pasiboak: hirugarren batzuekiko zorrak, hala nola kreditu erakunde ez diren pertsonengandik edo enpresetatik jasotako maileguak eta finantza kredituak, aktibo ez-korronteen erosketan sortutakoak barne, jasotako fidantzak eta gordailuak eta hirugarren batzuek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak.

c) Ondare propioko tresnak: funts propioetan sartzen diren finantza tresna guztiak, hala nola jaulkitako akzio arruntak.



- Epe luzerako eta laburrerako finantza inbertsioak

- **Finantza aktiboak kostu amortizatuan.** Finantza aktibo bat kategoria honetan sartzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta enpresak inbertsioari eusten badio kontratua egikaritzetik eratorritako eskudiru fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta finantza aktiboaren kontratu baldintzek, data zehatzetan, eskudiru fluxuak eragiten badituzte. Eskudiru fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez dira. Kontratuko eskudiru fluxuak — printzipalaren kobrantzak eta ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez dira— mailegu arrunta edo komuna izaera duen akordio bati lotuta daude, baina horrek ez du eragozten eragiketa zero interes tasan edo merkatuaren azpitik adostea. Oro har, kategoria honetan sartzen dira eragiketa komertzialen ondoriozko kredituak (kobrantza geroratua duten enpresaren trafiko eragiketengatik ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean sortzen diren finantza aktiboak) eta eragiketa ez-komertzialen ondoriozko kredituak (ondare tresnak edo deribatutak ez izan arren, jatorri komertzialik ez duten finantza aktiboak, haien kobrantzak zenbateko jakinekoak edo determinagarriak badira, eta enpresak emandako mailegu edo kreditu eragiketetatik badatoz). Hau da, kategoria horren barruan egongo lirateke kobratu beharreko maileguak eta kontuak, zorra adierazten duten baloreak — mugaeguna finkatuta dutenak—, eta zenbateko jakin edo zehatzeko moduko kobrantzak — merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta Erakundeak mugaegunera arte gordetzeko asmoa eta ahalmena dauzkanak—.

- **Hasierako balorazioa:** Hasieran, zentzuzko balioaren arabera baloratzen dira, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak gehituta. Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuaren interes tasa espliziturik ez duten merkataritza eragiketen ondoriozko kredituak, langileei emandako kredituak, kobratzeko dibidenduak eta ondare tresnei buruz eskatutako ordainketak —horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero da—, balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, eskudiru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

- **Geroagoko balorazioa:** kostu amortizatuan egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes tasa efektiboaren metodoa aplikatuz.

Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten kredituak, aurreko atalean xedatutakoaren arabera, hasieran haien balio nominalaren arabera balioesten badira, zenbateko horretan balioesten jarraituko dira, narriatu ez badira.

Finantza aktibo baten kontratuko eskudiru fluxuak jaulkitzailearen zailtasun finantzarioen ondorioz aldatzen direnean, balio narriaduraren ondoriozko galera kontabilizatu behar den aztertuko du enpresak.

- **Narriadura:** Kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistratuta dagoen horien liburuetaiko balioaren artean dagoen diferentziaren ondoriozko narriadurak erregistratzen ditu Erakundeak.



Ekitaldi itxieran, gutxienez, beharrezko balio zuzenketak egiten dira, baldin eta ebidentzia objektiboa badago kategorian honetan sartutako finantza aktibo baten balioa, edo modu kolektiboan baloratutako antzeko arrisku ezaugarriak dituen finantza aktiboen talde batena, narriatu egin dela egiaztatzeko —hasierako aitopenen ondoren izandako gertaera baten edo gehiagoren ondorioz—, baldin eta gertakari horiek etorkizuneko eskudiru fluxu estimatuak murriztea edo atzeratzea badakarte —zordunaren kaudimengabeziaren ondorioz—.

Finantza aktibo horien balio narriaduraren ondoriozko galera da liburuetan duten balioaren eta etorkizuneko eskudiru fluxuen egungo balioaren arteko aldea; hala badagokio, sortuko diren berme erreal eta pertsonalak egikarizetik eratorritakoak barne, hasierako aitopenen unean kalkulaturako interes tasa efektiboaren arabera deskontatuta.

Narriaduraren ondoriozko balio zuzenketak, eta horien itzulketa —galera horren zenbatekoa gerora eman den gertakari batekin lotutako arrazoiengatik murrizten denean—, gastu edo sarrera gisa kontabilizatzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga da itzulketa datan kontabilizatuta egongo litzatekeen aktiboaren liburuetaiko balioa, balio narriadurarik erregistratu ez balitz.

- **Finantza aktiboen baja**

Erakundeak finantza aktiboei baja emango die finantza aktiboaren eskudiru fluxuen gaineko eskubideak iraungi direnean edo laga direnean eta jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak funtsean transferitu direnean. Kobratu beharreko kontuen kasuan, oro har, kaudimengabezia eta berandutze arriskuak transmititu badira gertatzen dela ulertuko da.

Finantza aktiboari baja ematen zaionean, egotzi daitezkeen transakzio kostuetatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboaren liburuetaiko balioaren arteko aldeak —gehi zuzenean ondare garbian aintzatesitako edozein zenbateko metatuk— zehazten du aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera —hori gertatzen den ekitaldiko emaitzaren parte da—.

Aitzitik, Erakundeak ez die baja ematen finantza aktiboei, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko finantza pasibo bat aitortzen du, bere jabetzari lotutako arriskuak eta mozkinak funtsean atxikitzen diren finantza aktiboen lagapenetan.

- **Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak**

Erantsitako egoera balantzearen epigrafe honen azpian erregistratzen dira kutxako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko hiru hilabetetik beherako epemuga duten epe laburreko beste inbertsio batzuk, kutxan berehala gauzatu daitezkeenak eta balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

- **Finantza pasiboak**

Finantza pasiboak, baloratzeko, kategorian hauetakoren batean sartzen dira:

- **Finantza pasiboak kostu amortizatuan.** Kategorian honen barruan, finantza pasibo guztiak sailkatzen dira, galdu-irabazien kontuan aldaketan bitartez zentzuzko balioan baloratu behar direnean izan ezik. Oro har, kategorian honetan sartzen dira eragiketa komertzialen ondoriozko zorrak eta eragiketa ez-komertzialen ondoriozko zorrak.

Mailegu arrunt edo komun baten ezaugarriak dituzten partaidetzako maileguak ere kategorian horretan sartuko dira, eragiketa zero interes tasan edo merkatutik behera adostearen kalterik gabe.



- **Hasierako balorazioa:** Hasieran zentzuzko balioaren arabera baloratzen dira, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuen arabera doitutako kontraprestazioaren zentzuzko balioaren baliokidea. Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes tasarik ez duten eragiketa komertzialen ondoriozko zorrak, eta hirugarrenek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak —horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero da— balio nominalaren arabera balora daitezke, eskudiru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

- **Geroagoko balorazioa:** kostu amortizatuan egiten da. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes tasa efektiboaren metodoa aplikatuz. Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten zordunketak, aurreko atalean xedatutakoaren arabera, hasieran haien balio nominalaren arabera balioesten badira, zenbateko horretan balioesten jarraituko dira.

- **Finantza Pasiboak zentzuzko balioan galdu-irabazien kontuan aldaketekin.** Kategoría honen barruan, honako baldintza hauetako batzuk betetzen dituzten finantza pasiboak sailkatzen dira:

- **Negoiazteko mantentzen diren pasiboak dira.**

- **Hasierako aitortpena egin zenetik, eta modu ezeztazinean, erakundeak galdu-irabazien kontuan aldaketekin zentzuzko balioan kontabilizatzeko izendatu dituen pasiboak dira, betiere izendapen horrek kontabilitate araudian ezarritako helburua betetzen badu.**

- **Aukeran eta modu ezeztazinean, kategoría honetan sar daitezke osorik KPOn ezarritako betekizunei lotutako finantza pasibo hibridoak.**

- **Hasierako balorazioa:** Zentzuzko balioa, kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, eta jasotako kontraprestazioaren zentzuzko balioaren baliokidea izango da. Zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira.

- **Geroagoko balorazioa:** Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituen zentzuzko balioa.

- **Finantza pasiboen baja**

Erakundeak baja emango dio finantza pasibo bati, edo haren zati bati, betebeharra iraungi denean; hau da, ordaindu, ezereztu edo amaitu denean.

- **Entregatutako eta jasotako fidantzak**

Obligazio jakin batzuen berme gisa eraturako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoan baloratzen dira, eta ez da zentzuzko baliotik nabarmen aldentzen.

Errentamendu operatiboengatik edo zerbitzuak emateagatik emandako edo jasotako fidantzetan, zentzuzko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea errentamenduagatik edo zerbitzua emateagatik egindako ordainketa edo kobrantza aurreratutzat hartzen da. Hori galdu-irabazien kontuari egozten zaio, errentamendu aldian edo zerbitzua ematen den aldian, salmenten eta zerbitzu emateen ondoriozko diru sarrerei buruzko arauaren arabera.



Fidantzen zentzuzko balioa kalkulatzean, gerakintzat hartzen da kontratuaren gutxieneko epe konprometitua, non zenbatekoa itzuli ezin den itzulketaren portaera estatistikoa kontuan hartu gabe.

Fidantza epe laburrekoa denean, ez da beharrezkoa eskudiru fluxuen deskontua egitea, horren eragina esanguratsua ez bada.

- Zentzuzko balioa

Zentzuzko balioa aktibo bat saltzeagatik jasotzen den prezioa da, edo balorazio datan merkatuko parte hartzaileen arteko transakzio ordenatu baten bidez pasibo bat transferitzeko edo kitatzeko ordaintzen dena. Zentzuzko balioa zehazten da inolako kenkaririk egin gabe besterentzeagatik edo beste bitarteko batzuk erabiltzeagatik sor litezkeen transakzio kostuengatik. Ez da, inola ere, zentzuzko balioetat hartuko bortxazko, presazko edo nahi gabeko likidazio egoera baten ondoriozko transakzio baten emaitza. Oro har, zentzuzko balioan baloratutako finantza tresnen balorazioa egitean, Erakundeak merkatuko balio fidagarri baten arabera kalkulatzeko du balio hori, eta merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da zentzuzko balio horren erreferentziarik onena. Merkatu aktiborik ez duten tresnetarako, zentzuzko balioa lortzen da balorazio ereduak eta teknikak aplikatuta.

Merkataritza eragiketen ondoriozko kredituen eta zorren liburuetaiko balioa zentzuzko baliora hurbiltzen dela onartzen da.

4.6.- Izakinak

Partida horretan erregistratuta daude Goiko Galtzara Berriko eta Katalina Elizegiko sustapenetako soberako garaje plazak, salgai jar daitezkeenak. Eskuratze prezioan edo produkzio kostuan baloratzen dira. Nolanahi ere, prezioan edozein beherapen edo murrizketa egin ondoren, eta fakturatutako zenbatekoaz gain, kontuan hartuko dira funtzionatzen hasi aurretik eta saltzeko baldintzetan egon arte sortzen diren gastu gehigarri guztiak.

Izakinaren gaineko zeharkako zergak eskuratzen diren prezioan edo produkzio kostuan soilik gehituko dira, Ogasun Publikoak zuzenean berreskuratu ezin dituenean.

Saltzeko urtebete baino gehiago behar duten izakinei dagokienez, ibilgetu materialari buruzko arauan aurreikusitako moduan txertatuko dira finantza gastuak.

Izakinaren etorkizuneko horniduren kontura hornitzaileei egiten zaizkien aurrerakinak dagokien kostuaren arabera baloratzen dira.

Produktu zaharkituen, akastunen edo mugimendu motelekoen balorazioa haien balizko gauzatze baliora murriztu da.

Izakinaren balio garbi egingarria, berez, eskuratze prezioa edo produkzio kostua baino txikiagoa denean, beharrezkoak diren balorazio zuzenketak egingo dira, galdu-irabazien kontuko gastu gisa aitortuz.

Izakinaren balioa zuzentzea eragin zuten inguruabarrak desagertzen badira, zuzenketaren zenbatekoa itzuli egingo da, eta galdu-irabazien kontuko sarrera gisa aitortuko da.



4.7.- Mozkinen gaineko zergak

Zerga geroratu kontabilizatuen ondoriozko pasiboak bat datoz Donostiako Udalak emandako dirulaguntzen eta doako lagapenen ondorioz ondare garbian zuzenean erregistratutako diru sarrerren gaineko zerga efektuarekin. Zerga geroratuen ondoriozko pasiboak baloratuko dira itzultzeko unean espero diren karga tasen arabera —% 2,4 Eusko Jaurkitzaren dirulaguntzetarako eta % 24 etxebizitzaren errenta jardueraren eta gainerakoen kasuan jasotako doako lagapenetarako—.

Ekitaldiko zergaren ondoriozko gastua zehaztuko da zerga korronteko gastuaren eta zerga geroratuko gastuaren baturaren bidez. Zerga korrontearen ondoriozko gastua zehaztuko da mozkin fiskalari indarrean dagoen karga tasa aplikatuz eta horrela lortutako emaitza murriztuz ekitaldian aplikatutako hobari eta kenkari orokorren zenbatekoan.

Kontabilitate itxiera bakoitzean, erregistratutako zerga geroratuak (aktiboak zein pasiboak) berrikusten dira, indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko, eta dagozkien zuzenketak egiten zaizkie egindako azterketen emaitzen arabera.

Zerga geroratuaren ondoriozko gastu edo sarrera bat dator zerga geroratuaren ondoriozko pasibo eta aktiboen aitortzearekin eta kitapenarekin, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren izaera ekonomikoa duten kenkariak eta bestelako abantaila fiskalak kontabilizatzearen emaitza izan daitekeen ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrera aitortzearekin eta galdu-irabazien kontuari egoztearekin.

2025eko ekitaldirako Sozietateen gaineko Zerga 2/2014 Foru Arauaren arabera likidatu da.

4.8.- Sarrerak eta gastuak

- Alderdi komunak.

Erakundeak bere jardueraren ohiko garapenaren ondorioz diru sarrerak aitortzen ditu bezeroekin konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrola transferitzen denean. Une horretan, erakundeak diru sarrera baloratuko du, ondasun edo zerbitzu horien truke jasotzeko eskubidea izatea espero duen kontraprestazioaren zenbatekoaren arabera.

Ez da diru sarrerarik aitortzen elementu homogeneoen trukeetan, hala nola amaitutako produktuen trukeetan, edo bi enpresaren arteko salgai trukagarrietan, beren produktua beren bezeroei emateko garaian merkataritza lanean eraginkorragoak izateko.

- Balorazioa.

Ondasunak saltzearen edo zerbitzuak egitearen ondoriozko sarrerak horiengatik jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren zentzuzko balioan onartzen dira. Murrizketa gisa erregistratzen dira berehala ordaintzearen ondoriozko edo bolumenaren ondoriozko deskontuak, edo beste mota bateko deskontuak, eta kredituen nominalean txertatutako interesak. Nolanahi ere, Erakundeak barnean hartuko ditu gehienez urtebeteko muga eguna duten eta kontratuko interes tasa ez duten merkataritza eragiketen ondoriozko kredituak, baldin eta eskudiru fluxuak ez eguneratzearen eragina adierazgarria ez bada.

Bezeroei egindako deskontuak aitortzen dira deskontuak emateko zehaztu diren baldintzak betetzea posible den unean, eta salmenten ondoriozko sarrerren murrizketa gisa onartzen dira.

Etorkizuneko salmenten konturako aurrerakinak jasotako balioaren arabera baloratuta agertuko dira.



4.9.- Hornidurak eta kontingentziak

Egoera balantzearen datan dauden obligazioak, zehazki Erakundearentzat ondare kalteak eragin ditzaketen iraganeko gertaeren ondorioz sortutakoak —horien zenbatekoa eta kitatze unea zehaztu gabeak dira—, hornidura gisa erregistratzen dira egoera balantzean, betiere Erakundeak obligazioa kitatzeko ordaindu beharko duen zenbatekorik probableenaren egungo balioarekin.

4.10.- Langile gastuak erregistratzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideak

Prestazio definituaren ondoriozko ordainsarien kasuan, egin beharreko kontribuzioek langileen epe luzeko ordainsarien ondoriozko pasibo bat sortzen dute, ekitaldi itxieran ordaindu gabeko kontribuzio sortuak agertzen direnean.

Langileen epe luzeko ordainsarietako hornidura gisa aitortzen den zenbatekoa da konprometitutako ordainsarien balio eguneratuaren eta obligazioak likidatzeko konpromisoerik lotutako balizko aktiboen zentzuzko balioaren arteko aldea.

Justifikatutako arrazoen kasuan izan ezik, sozietateek langileei kalte-ordainak eman behar dizkiete zerbitzuak uzten dituztenean.

Enplegua ezohiko moduan amaitzeko inolako premiarik ez dagoenez, eta beren borondatez erretiratzen diren edo beren zerbitzuak ematen uzten dituzten enplegatuek kalte-ordainik jasotzen ez dutenez, kalte-ordainen ordainketak, hala azaltzen direnean, gastuetara kargatzen dira kaleratzea gauzatzeko erabakia hartzen den unean.

4.11.- Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzultzekoak ez diren kapitaleko dirulaguntzak emandako zenbatekoaren arabera baloratzen dira. Hasiera batean, ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrera gisa aitortzen dira eta emaitzei egozten zaizkie, salbu eta dirulaguntza horiekin finantzatutako aktiboek aldi horretan izandako balio galeraren proportzioan balioa galtzen ez duten aktiboak badira. Halakoetan, horiek inbentarioan baja ematen diren edo besterentzen diren ekitaldiaren emaitzari egotziko zaizkio. Itzul daitezkeen dirulaguntzen izaera duten bitartean, dirulaguntza bihur daitezkeen epe luzerako zor gisa kontabilizatzen dira.

Dirulaguntzak gastu jakin batzuk finantzatzeko ematen direnean, sarrera gisa jasoko dira finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldian.

4.12. Elkarri lotutako aldean arteko transakzioetan erabilitako irizpideak

Urteko kontuak prestatzerakoan, taldeko enpresekiko saldotzat hartu dira Donostiako Udalarekin, Erakundearen bazkide bakarrarekin, izandakoak. Erakundeak araudi autonomikoan markatutako balioerik lotutako errentamendu eragiketak egiten ditu.

Donostiako Udalak Erakundeari partzelak doan lagatzen dizkionean, aditu independente batek egindako balorazioaren arabera kontabilizatutako dira partzela horiek, betiere Eusko Jaurlaritzak emandako babes publikoko etxebizitzaren kalifikazioan ageri den gehieneko salmenta prezioa kontuan hartuta.

Lurzoruaren balioak ezin du gainditu gehieneko prezio horren % 20 edo % 10, partzela urbanizatuta egon ala ez, hurrenez hurren.

**4.13. Saltzeko mantendutako aktibo ez-korranteak.**

Atal honetan erregistratzen dira beren kontabilitate balioa batez ere salmentaren bidez berreskuratuko dituzten aktiboak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Aktiboak eskuragarri egon behar du egungo baldintzetan, berehala saltzeko, eta
- Hura saltzeko aukerak handia izan behar du, dela aktiboa saltzeko plan bat dagoelako eta eroslea aurkitzeko programa bat hasi delako, dela aktiboaren salmenta prezio egokian negoziatu behar delako, uneko zentzuzko balioaren arabera, eta hurrengo urtean salmenta osatzea espero delako. Oso zaila da bertan aldaketa esanguratsuak egotea edo hura erretiratzea.

Kategoria honetan sailkatzeko unean, kontabilitate balioaren eta zentzuzko balioaren arteko txikiena ken salmenta kostuak baloratuko dira.

5. OHARRA.– IBILGETU MATERIALA

2025eko eta 2024ko ekitaldietan honako mugimendu hauek erregistratu dira ibilgetu materialaren kontuetan eta haiei dagozkien amortizazio metatuetan:

ibilgetu materiala	Saldoa 2025/12/31n	Sarrerak	Irteerak	Saldua 2025/12/31n
Lurrak	847.480,49			847.480,49
Higiezinak	2.831.697,90			2.831.697,90
Instalazio teknikoak eta makineria	0,00			0,00
Altzariak	148.929,52			148.929,52
Informatika tresneria	89.891,46	7.767,75		97.659,21
Bestelako ibilgetu materiala	22.090,74	3.313,12		25.403,86
Kostua guztira	3.940.090,11	11.080,87	0,00	3.951.170,98

Higiezinak	2.598.710,15	36.982,40		2.635.692,55
Instalazio teknikoak eta makineria	0,00			0,00
Altzariak	136.315,35	3.417,44		139.732,79
Informatika tresneria	75.470,11	7.582,00		83.052,11
Bestelako ibilgetu materiala	18.381,53	1.885,95		20.267,48
Amortizazio metatua guztira	2.828.877,14	49.867,79	0,00	2.878.744,93

2025eko ekitaldiako balio partila	1.111.212,97			1.072.426,05
--	---------------------	--	--	---------------------



ibilgetu materiala	Saldoa 2024/01/01ean	Sarrerak	Irteerak	Saldoa 2024/12/31n
Lurrak	847.480,49			847.480,49
Higiezinak	2.831.697,90			2.831.697,90
Instalazio teknikoak eta makineria	0,00			0,00
Altzariak	139.508,64	9.420,88		148.929,52
Informatika tresneria	85.094,79	4.796,67		89.891,46
Bestelako ibilgetu materiala	22.090,74			22.090,74
Kostua guztira	3.925.872,56	14.217,55	0,00	3.940.090,11

Higiezinak	2.519.808,02	78.902,13		2.598.710,15
Instalazio teknikoak eta makineria	0,00			0,00
Altzariak	132.586,24	3.729,11		136.315,35
Informatika tresneria	67.117,15	8.352,96		75.470,11
Bestelako ibilgetu materiala	16.444,87	1.936,66		18.381,53
Amortizazio metatua guztira	2.735.956,28	92.920,86	0,00	2.828.877,14

2024ko abenduaren 31n balio garbia	1.189.916,28			1.111.212,97
---	---------------------	--	--	---------------------

2025eko abenduaren 31n eta 2024ko abenduaren 31n, hauxe da ustiapenari lotzen ez zaizkion ibilgetu materialeko elementuen xehetasuna:

Zuzenean eraginpean ez dagoen ibilgetu materiala	Kontabilitate balioa	25/12/31ko amortizazio metatua	24/12/31ko amortizazio metatua
Konstituzio Plazako lokala	358.863,26	193.474,89	188.042,96
Baroja inprimategiko lokala	597.401,20	135.225,25	129.131,76
Fermin Calbeton kaleko higiezina	2.303.755,85	2.023.700,23	2.004.908,95
Bertsolari Txirrita 22ko lokala	287.171,28	194.087,60	189.520,83
Bertsolari Txirrita 22ko lokala	101.989,80	68.930,83	67.308,93
Bertsolari Txirrita 24ko lokala	29.997,00	20.273,75	19.796,72
Zuzenean ustiapenaren eraginpean ez dagoen ibilgetu materiala (GUZTIRA)	3.679.178,39	2.635.692,55	2.598.710,14

2015eko urtarrilaren 9an Donostiako Udaleko Gobernu Batzarrak hau erabaki zuen:

1.- Etxegintzak, Donostiako Udalaren izenean eta udal zerbitzu administratiboetarako, atxikitzea Konstituzio Plazako 1 zenbakiko beheko solairuaren eta behegainaren erabilera eta Baroja inprimategi gisa deskribatutako lokalaren erabilera. 2025eko abenduaren 31n ondasun horien kontabilitate balio garbia 627.564,32 eurokoa zen eta 2024ko abenduaren 31n 639.089,74 eurokoa.

Horrez gain, Erakundeak dohainik laga die zenbait higiezin erabilera Donostiako Udalaren Kultura Sailari, Correosi eta Udalarari berari. 2025eko abenduaren 31n higiezin horien kontabilitate balio garbia 415.921,52 eurokoa zen eta 2024ko abenduaren 31n 441.378,50 eurokoa.



Ekitaldi itxieran erabat amortizatuta daude:

	2022	2021
Altzariak	133.944,62	124.214,51
Informatika ekipoak	65.130,23	60.742,79
Bestelako ibilgetua	19607,16	240,57
GUZTIRA	218.681,99	185.197,87

Erakundeak ez dio baja eman 2025eko eta 2024ko ekitaldietan ekitaldiko emaitzari inolako ekarpenik egin dion ibilgetu materialeko ezein partidari.

Erakundeak eta Donostiako Udalak aseguru polizak kontratatu dituzte ibilgetu materialaren elementuek dituzten arriskuak estaltzeko. Poliza horien estaldura nahikotzat jotzen da.

6. OHARRA.- HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

2025eko eta 2024ko ekitaldietan honako mugimendu hauek erregistratu dira higiezinetao inbertsioen kontuetan eta haiei dagozkien amortizazio metatuetan:

Higiezinetao inbertsioak	Saldoa 2024/01/01ean	Sarrerak	Irteerak	Birsalikapena	Saldoa 2024/12/31n
Errentamendurako higiezinak	177.357.652,61	-	30.055,26	-	177.327.597,35
Azalera eskubidean lagatako higiezinak	9.836.428,24	-	-	-	9.836.428,24
Bizitantze eskubidean lagatako higiezinak	13.325.013,34	-	25.351,89	-	13.299.661,45
Abian diren eraikuntzak eta aurrerakinak	203.919,37	1.542.413,40	-	-	1.746.332,77
Epe luzeerako hornitzaileentzako aurrerakinak	15.500,00	-	-	-	15.500,00
Kostua guztira	200.738.513,56	1.542.413,40	55.407,15	-	202.225.519,81
Amortizazio metatua guztira	48.294.607,80	3.300.651,00	24.270,60	-	51.570.988,20
2025eko ekitaldiko balio garbia	152.443.905,76				150.654.531,61

Higiezinetao inbertsioak	Saldoa 2023/01/01ean	Sarrerak	Irteerak	Birsalikapena	Saldoa 2023/12/31n
Errentamendurako higiezinak	176.809.789,41	-	33.185,15	581.048,35	177.357.652,61
Azalera eskubidean lagatako higiezinak	9.836.428,24	-	-	-	9.836.428,24
Bizitantze eskubidean lagatako higiezinak	13.325.013,34	-	-	-	13.325.013,34
Abian diren eraikuntzak eta aurrerakinak	198.473,19	586.494,53	-	-581.048,35	203.919,37
Epe luzeerako hornitzaileentzako aurrerakinak	15.500,00	-	-	-	15.500,00
Kostua guztira	200.185.204,18	586.494,53	33.185,15	0,00	200.738.513,56
Amortizazio metatua guztira	45.076.845,29	3.240.608,62	22.846,11		48.294.607,80
2024ko ekitaldiko balio garbia	155.108.358,89				152.443.905,76



Aseguru polizak formalizatzea da erakundearen politika, ibilgetu materialeko elementuek edo higiezinetakoinbertsioen elementuek izan ditzaketen arriskuak estal daitezen.

Errentamendurako ondasun higiezin partidan barnean hartzen dira Erakundeak alokairura bideratzen dituen higiezin guztiak, bai bere jabetzakoak, bai Donostiako Udalak alokairuan kudeatzeko atxikitzen dizkionak. Era berean, barnean hartzen dira eraikuntzen balioa eta eraikin horiek eraikitzen diren orubeen balioa.

Azalera eskubidean lagatako higiezin barruan sartzen dira babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko 75 urterako lagatako partzelak, ondoren saltzera begira. Partzela horiek zein horietan eraikitako etxebizitzak Erakundeari itzuliko zaizkio epe hori amaitutakoan.

Higiezin horien barruan sartzen dira, halaber, Erakundeak sustatutako babes ofizialeko etxebizitzak, 75 urterako lagatzen direnak azalera eskubidean. Horixe da, hain zuzen ere, Etxadiko sustapenaren kasua, 1995. urtean, baita Zubietako sustapenaren kasua ere, 2007an.

Biztantze eskubidean lagatako higiezinak bat datoz adinekoentzako aldi baterako bizitokiekin, eta higiezin horien erabilera lagatzen da erabiltzailearen ekarpen ekonomiko baten truke. Ekarpene hori ostatu erabilerari uzten zaion unean itzuliko da. Donostiako Udalarilagatako adinekoentzako aldi baterako bizilekuak, bestalde, 2009tik aurrera agertzen dira jasota, hain zuzen ere Administrazio Kontseiluak onartzen duenean gainerako aldi baterako bizitokien baldintza beretan biztantze eskubidean lagatzen direla.

Orubeak eta lursailak egokitzeko partidan barnean hartzen dira partzelak orube bihurtzeko behar diren urbanizazio gastuak; aldiz, egiten ari diren eraikuntzek eta aurrerakinek egikaritzen ari diren sustapenetan egindako gastuak eta aurrerakinak biltzen dituzte.

2009an ibilgetu ondasun batzuen balorazio zuzenketak egin ziren, aditu independente batek egindako balorazio txostenean oinarrituta.

Erakundeak eta Donostiako Udalak aseguru polizak kontratatu dituzte higiezinetakoinbertsioen elementuek dituzten arriskuak estaltzeko. Poliza horien estaldura nahikotzat jotzen da.

7. OHARRA.- IBILGETU UKIEZINA

2025eko eta 2024ko ekitaldietan honako mugimendu hauek erregistratu dira ibilgetu ukiezinaren kontuetan eta haiei dagozkien amortizazio metatuetan:

ibilgetu ukiezina	Saldoa 2025/01/01ean	Sarrerak	Saldoa 2025/12/31n
Aplikazio informatikoak	294.093,41	23.042,84	317.136,25
Kostua guztira	294.093,41	23.042,84	317.136,25
Aplikazio informatikoak	238.384,23	23.616,46	262.000,69
Amortizazio metatua guztira	238.384,23	23.616,46	262.000,69
2025eko ekitaldiro balio gardia	55.709,18	*	55.135,56



Indigero okerria	Saldoa 2024/01/01ean	Sarritan	Saldoa 2024/12/31an
Aplikazio informatikoak	268.099,08	25.994,33	294.093,41
Kostua guztira	268.099,08	25.994,33	294.093,41

Aplikazio informatikoak	213.805,12	24.579,11	238.384,23
Amortizazio metatua guztira	213.805,12	24.579,11	238.384,23

2025eko ekitaldi bakoaren	24.579,11		24.579,11
---------------------------	-----------	--	-----------

Aurretik zehaztutako ibilgetu ukiezin guztia, ustiapenari zuzenean atxikita dagoena, erabileran dago eta ez da epe laburrean hura saltzea aurreikusten. Ekitaldi itxieran erabat amortizatuta daude:

	ZENBATEROA 2025	ZENBATEROA 2024
Aplikazio informatikoak	204.612,66	182.862,44
GUZTIRA	204.612,66	182.862,44

Erakundeak ez dio baja eman 2025eko eta 2024ko ekitaldietan ekitaldiko emaitzari inolako ekarpenik egin dion ibilgetu ukiezinerako ezein partidari.

8. OHARRA.- ERRENTAMENDUAK ETA ANTZEKO BESTE ERAGIKETA BATZUK

• 8.1 ERRENTAMENDU OPERATIBOAK

Erakundeak alokatzen dituen errentamendu operatiboei buruzko informazioa honako hau da:

Errentamendu operatiboak: Errentatzailearen informazioa	2025eko ekitaldi	2024ko ekitaldi
Etorkizuneko gutxileneko kobrantzen zenbatekoa errentamendu operatibo ezeztazainengatik		
_ Urte bat arte	8.733.595,39	6.290.808,07
_ Bat eta bost urte artean	11.039.945,68	7.952.072,01
_ Bost urte baino gehiago	7.861,09	5.662,34

Erakundeak alokairuko errentariari lagatzen dio etxebizitza, bere instalazio eta zerbitzu guztiekin.

Errentariak, hitzartutako errentaz gain, eraikinak dituen edo izan ditzakeen zerbitzu eta horniduren gastu orokorrak edo komunak ordainduko ditu.



Erakundea errentadun den errentamendu operatiboetarako buruzko informazioa honako hau da:

Errentamendu operatiboak: Errentariaren informazioa	2025eko ekitaldia	2024ko ekitaldia
Etorkizuneko gutxieneko ordainketen zenbatekoa errentamendu operatibo ezeztaz ingatik		
_ Urte bat arte	107.895,07	142.525,05
_ Bat eta bost urte artean	174.688,27	352.627,47
Ekitaldiaren itxieran, ezeztatu ezin diren azpierrete errentamendu operatiboengatik jasotzea espero diren etorkizuneko gutxieneko kobrantzen zenbateko osoa	45.007,13	51.668,62
Errentamenduen ondoriozko gutxieneko ordainketak, aldiko gastu gisa aitortuak. Azpierrete errentamendu kuota, aldiko diru sarrera gisa aitortuak	190.311,58	181.558,08
	45.007,13	27.135,32

Alokairuak honako hauei dagozkie:

	Data	Irteerak	Errentak	Errentaren	Zenbatekoa
Miramar jauregiaren alokairua	2023/10/04	4 urte	urte bateko aldi 1	2028/10/04	6.462,00
San Martzial alokairua	2019/11/13	2 urte	bi urteko aldiak 6 urte arte	2025/11/13	6.480,18
BIM ezartzeko softwarea	2024/08/26	3 urte	Urtero	2027/08/26	6.016,63
Autoen renting-a	2024/05/10	4 urte	Urtero	2028/05/09	2.027,87

9. OHARRA. – FINANTZA TRESNAK

9.1 Finantza tresnek finantza egoeran duten garrantziari eta enpresaren emaitzei buruzko informazioa

- Balantzearekin lotutako informazioa:

a) Finantza aktiboen eta pasiboen kategoriak

Erregistratzeko eta baloratzeko bederatzigarren arauan adierazitako finantza aktiboen eta pasiboen kategoria bakoitzaren liburu-tako balioa honako hau da:

a.1) Finantza aktiboak, taldeko enpresen, talde anitzeko enpresen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak izan ezik.

Hau da finantza aktibo ez-korrente mota bakoitzerako ekitaldiko mugimenduen analisia:

	Kredituak, deribatuak eta beste batzuk	GUZTIRA
2024ko ekitaldiaren hasierako saldoa	9.000,00	9.000,00
2024ko ekitaldiaren amaierako saldoa	9.000,00	9.000,00
2025eko ekitaldiaren amaierako saldoa	9.000,00	9.000,00

Gordailututako finantza bati dagokion zenbatekoa erregistratzen da kreditu, deribatu eta bestelakoetan. Erakundearen epe luzeko balantzearen aktiboaren finantza tresnei buruzko informazioa, kategorien arabera sailkatuta, honako hau da:



		MOTAK			
		Kredituak, Deribatutako aktiboak eta besterak		GUZTIRA	
		2023ko ekit.	2024ko ekit.	2023ko ekit.	2024ko ekit.
KATEGORIAK	Galdututako irabazietan aldaketak dituzten zentzuzko balioko aktiboak. Horietatik:				
	– Negoziazio zorroa				
	– Izendatuak				
	– Beste batzuk				
	Finantza aktiboak kostu amortizatuan	9.000,00	9.000,00	9.000,00	9.000,00
	Finantza aktiboak kostuan				
	Ondare garbian aldaketak dituzten zentzuzko balioko aktiboak				
	Estalduraren deribatutak				
	GUZTIRA	9.000,00	9.000,00	9.000,00	9.000,00

Epe laburrera Erakundearen balantzeko aktiboaren finantza tresnei buruzko informazioa, eskudirua eta beste aktibo baliokide batzuk kontuan hartu gabe, kategorien arabera sailkatuta, honako hau da:

		MOTAK			
		Kredituak, Deribatutako aktiboak eta besterak		GUZTIRA	
		2023ko ekit.	2024ko ekit.	2023ko ekit.	2024ko ekit.
KATEGORIAK	Galdututako irabazietan aldaketak dituzten zentzuzko balioko aktiboak. Horietatik:				
	– Negoziazio zorroa				
	– Izendatuak				
	– Beste batzuk				
	Finantza aktiboak kostu amortizatuan	6.576.158,88	4.926.128,87	6.576.158,88	4.926.128,87
	Finantza aktiboak kostuan				
	Ondare garbian aldaketak dituzten zentzuzko balioko aktiboak				
	Estalduraren deribatutak				
	GUZTIRA	6.576.158,88	4.926.128,87	6.576.158,88	4.926.128,87

	25-12-31n	24-12-31n
Merkataritza zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak	5.924.479,20	4.923.278,08
Salmenta eta zerbitzugintzako bezeroak	838.842,13	835.429,22
Hainbat zordun	3.411.737,40	2.847.745,07
Langileak	1.740,00	4.380,00
Beste kreditu batzuk administrazio publikoekin	1.672.159,67	1.235.723,79
Epe laburrerako finantza inbertsioak	651.679,68	2.850,79
Bestelako finantza aktiboak	651.679,68	2.850,79



"Salmenta eta zerbitzugintzako bezeroak" atalean kreditu, deribatu eta bestelakoetan, 2025eko abenduaren 31n ordaindu gabe zeuden alokairu ordainagiriak nabarmentzen dira — 4.312.299,99 eurogatik—. Horiek 3.473.457,86 eurotan narriatuta daude.

"Hainbat zordun" epigrafeko zenbateko nagusi gisa dago Donostiako Udalaren 3.308.463,56 euroko zorra, honako hauek osatzen dutena: 93.553,96 euro, Erakundeak bere jabetzako higiezin baten gainean zegoen enbargoa ordaindu duelako, 1.777.675,41 euro esku-hartze handietarako, 1.187.061,65 euro biztante eskubideak iraungitzeko, 209.000,00 euro hurbileko bulegorako eta 41.172,54 euro Altzan kontsumoak monitorizatzeko.

"Beste kreditu batzuk administrazio publikoekin" atalean, funtsean, honako hau jasotzen da: 1.661.332,84 euroko zenbatekoa, Eusko Jaurlaritzak Donostiako Kanpandegi kaleko 2an dagoen titulartasun publikoko lurzoruan B motako 15 Zuzkidura Bizitoki sustatzeko 600.000,00 euroko dirulaguntzagatik zor duen zorrari dagokiona; eta Eusko Jaurlaritzak Bertako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 2023ko abenduaren 2an birgaitze bulegoen eta erakunde laguntzaileen funtzioak garatzeko erakundeekin egindako hitzarmenaren ondorioz zor dizkien 1.061.332,84 euroak.

Eskudiruaren eta bestelako aktibo likido baliokideen guztizkoa eskudiru fluxuen egoera orrian sartzen da.

Erakundearen eskudiruaren liburuetaiko zenbatekoak eta eskudiruaren baliokideak honako moneta hauetan daude izendatuta:

	2025eko ekitaldia	2024ko ekitaldia
Euro	2.374.113,82	3.589.929,73
GUZTIRA	2.374.113,82	3.589.929,73

a.2) Finantza pasiboak.

Erakundearen epe luzeko balantzearen pasiboaren finantza tresnak, kategorien arabera sailkatuta, honako hauek dira:

	MOTAK					
	Kreditu erakundeetako zorrak		Bestelako finantza pasiboak		GUZTIRA	
	2024ko abuztu	2024ko abuztu	2025eko abuztu	2024ko abuztu	2025eko abuztu	2024ko abuztu
Finantza pasiboak kostu amortizatuan edo kostuan	47.337.229,66	52.471.765,25	18.050.478,51	16.686.067,89	65.347.708,17	71.157.833,14
Galdutzaileen bidezko zentzuzko balioko pasiboak:						
— Hegoalazio zorroak						
— Izendatuak						
— Beste batzuk						
Estalduraren deribatutak						
GUZTIRA	47.337.229,66	52.471.765,25	18.050.478,51	16.686.067,89	65.347.708,17	71.157.833,14

	25-12-31n	24-12-31n
Epe luzerako zorrak	58.137.261,17	63.798.325,39
Kreditu erakundeetako zorrak	47.337.229,66	52.471.765,25
Bestelako finantza pasiboak	10.800.031,51	11.326.560,14
Epe luzerako periodifikazioak	7.210.447,00	7.359.507,75



Epe luzeko "Kreditu erakundeekiko zorrak" epigrafean biltzen dira erakundeak, alokairuko sustapenak finantzatze aldera, zenbait finantza erakunderekin dituen maileguren saldoak. Guztiek dute Donostiako Udalaren abala.

Pasibo horiek ez daude erregistratuta merkatuko benetako interesaren arabera, interes itunduaren arabera baizik, gehienak subsidiodun interes tasako maileguak baitira. Kontabilitate balioaren eta zentzuzko balioaren arteko aldea gutxi gorabehera 11.902.900,14 eurokoa dela zenbatetsi da.

Epe luzeko "Bestelako finantza pasiboak" partidaren barruan, erakundeak biztantzze eskubidedunekin duen 9.981.031,88 euroko zorra nabarmentzen da. Erakundeak, bere jabetzakoak diren adinekoentzako apartamentuen biztantzze eskubideak saltzen zituenean, konpromisoa hartzen zuen, biztantzze eskubidea amaitzean, biztantzze eskubidedunari edo kausadunari itzuliko zela: biztantzze eskubidearen prezio gisa Erakundeari ordaindutako zenbatekoa, gehi biztantzze eskubidea eratu eta iraungitzeko daten artean metatutako Kontsumoko Prezioen Indizearen ehunekoa, ken biztantzze eskubideak irauten duen urte bakoitzeko % 1, erabilera kontzeptuagatik (kenketa hori ez da aplikatzekoa izango Berrioko kasuan).

Partida hau Erakundeak jasotako 796.238,28 euroko fidantzek osatzen dute. Gainera, azalera eskubideak lagatzeagatik kanon gisa jasotako aurrerakinei dagozkien periodifikazioaren ondoriozko doikuntzak ere erregistratuta daude. 7.210.447,00 euroko balioa duten aurrerakin horiek galdu-irabazien kontura egotziko dira lagapenek irauten duten urteetan.

Erakundearen epe laburreko balantzearen pasiboaren finantza tresnei buruzko informazioa, kategorien arabera sailkatuta, honako hau da:

		MOTAK					
		Kreditu erakundeekiko zorrak		Deribatutako zorrak		GUZTIRA	
		2025eko ekar	2024ko ekar	2025eko ekar	2024ko ekar	2025eko ekar	2024ko ekar
KATEGORIAK	Finantza pasiboak kostu amortizatuar edo kostuan	5.918.438,97	5.809.826,80	2.705.877,69	2.371.915,66	8.624.316,66	8.181.742,46
	Galdu-irabazien bidezko zentzuzko balioa pasiboak:						
	- Negoziazio zorroa						
	- Izendatuak						
	- Beste batzuk						
	Estadunaren deribatutak						
	GUZTIRA	5.918.438,97	5.809.826,80	2.705.877,69	2.371.915,66	8.624.316,66	8.181.742,46

	25-12-31n	24-12-31n
Epe laburrerako zorrak	5.950.015,66	6.467.934,97
Kreditu erakundeekiko zorrak	5.918.438,97	5.809.826,80
Bestelako finantza pasiboak	31.576,69	658.108,17
Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak	2.529.240,25	1.564.746,74
Hornitzaileak	1.569.444,07	479.728,42
Hainbat hartzekodun	914.467,79	882.660,51
Langileak	32.420,08	132,29
Bezeroen aurrerakinak	12.908,31	202.225,52
Epe laburreko periodifikazioak	149.060,75	149.060,75



“Epe laburreko kreditu erakundeekiko zorrak” epigrafean biltzen dira erakundeak alokairuko sustapenak finantzatzeko aldera zenbait finantza erakunderekin dituen eta 2026ko ekitaldian amaitzen diren maileguen saldoak, 5.890.827,93 eurokoak, baita 2025ean sortutako eta 2026an ordaindu beharreko mailegu horien interesak ere, 27.611,04 euro.

2022ko abenduaren 2an, Etxegintzak lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin, erakunde laguntzaile gisa jarduteko, urriaren 5eko 853/2022 Errege Dekretuan (3, 4 eta 5 programak) eta 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren 1. eta 2. lerroetan (etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko, irisgarritasunerako eta energia efizientziarako jarduketak babesgarrietarako) araututako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren bizitegi birgaitzearen arloko laguntza programen inguruan Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzen administrazio izapidetzea kudeatzeko. Etxegintzak 5.753.178,77 euro jaso ditu kontzeptu horiengatik 2025eko abenduaren 31ra arte, eta aldeko ebazpenak daude 6.396.258,66 euroko laguntzak ordaintzeko; beraz, Eusko Jaurlaritzak 643.079,89 euro zor dizkio erakundeari.

“Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak” epigrafeko saldoa merkataritza hartzekodunekin egindako zorrei dagokie —urtebete baino gutxiagoko epemuga dute, ez dute inolako interes tasarik sortzen eta nominalean baloratzen dira—.

Kanpandegiren dirulaguntza emateari dagokion 750.000 euroko saldoa Hartzekodunak atalean ere jaso da.

Horrez gain, “Periodifikazioaren ondoriozko doikuntzak” epigrafean barnean hartzen dira azalera eskubideak lagatzearen ondoriozko kanonak. Zenbateko hori bat dator hurrengo hamabi hilabeteetan galdu-irabazien kontura egotzitako zenbatekoarekin.

b) Kreditu arriskuak sortutako balio narriaduraren ondoriozko zuzenketak

Hau da kreditu arriskuak sortutako narriaduraren ondoriozko galerak islatzen dituzten kontu zuzentzaileen mugimenduen analisia:

	Finantza aktibo motak			
	Kredituak, deribatuak eta beste batzuk (1)		GUZTIRA	
	Epe luzera	Epe laburrera	Epe luzera	Epe laburrera
Narriaduraren ondoriozko galera 2024ko ekitaldiaren hasieran		3.032.552,01		3.032.552,01
(+) Narriaduraren ondoriozko balorazio zuzenketa		3.357.616,02		3.357.616,02
(-) Narriaduraren itzulketa		(3.032.552,01)		(3.032.552,01)
Narriaduraren ondoriozko galera 2024ko ekitaldiaren amaieran	0,00	3.357.616,02	0,00	3.357.616,02
(+) Narriaduraren ondoriozko balorazio zuzenketa		3.473.457,86		3.473.457,86
(-) Narriaduraren itzulketa		(3.357.616,02)		(3.357.616,02)
Narriaduraren ondoriozko galera 2025eko ekitaldiaren amaieran	0,00	3.473.457,86	0,00	3.473.457,86



Erakundeak 3.473.457,86 euroko galera erregistratu du epe laburreko kredituen balio narriaduragatik. Kreditu horiek urtebetetik gorako antzinasuna duten maizterren zorrak estaltzen dituzte, egon litezkeen fidantzak eta aurrerakinak kendu ondoren. Narriadurari dagokionez, errenta sistematikoki ordaintzen ez duten maizterrak daude, eta hori aldean artean kontratua desegiteko sinatutako alokairu kontratuetan adierazitako arrazoiertako bat denez, Erakundeak mantendu egiten ditu, eta maizter horien kredituen balio narriaduraren ondoriozko galeren zenbatekoa kasu gehienetan urtero handitu egiten da.

Erakundeak aurretik dagoen zorra birnegoziatu ohi du maizterekin; edonola ere, esperientziak erakutsi du birnegoziatutako zor horietako asko oraindik kobratu gabe daudela, eta horregatik aurten birnegoziazioen zenbatekoa kredituen narriaduran sartu da, aurreko ekitaldian bezalaxe. Epe labur eta luzerako epemuga duten birnegoziazio horien zenbatekoa 2025eko abenduaren 31n 861.768,92 eurokoa da.

- **Galdu-irabazien kontuari eta ondare garbiari buruzko informazioa**

Erregistratzeko eta balioesteko bederatzigarren arauan definitutako finantza pasiboen kategorietatik eratorritako galera edo irabazi garbiak, interes tasa efektiboaren metodoa aplikatuta kalkulaturako finantza gastuak, honako taula honetan zehazten dira:

		Galera edo irabazi garbiak		Interes tasa efektibo aplikatzearen ondoriozko finantza gastuak	
		2025eko ekitaldia	2024ko ekitaldia	2025eko ekitaldia	2024ko ekitaldia
KATEGORIAK	Finantza pasiboak kostu amortizatuan edo kostuan	(806.277,50)	(872.148,16)	1.960.045,22	2.615.861,19
	Galdu-irabazien bidezko zentzuzko balio pasiboak:				
	— Negoziazio zorra				
	— Izendatuak				
	— Beste batzuk				
	Estalduraren deribatutak				
	GUZTIRA	(806.277,50)	(872.148,16)	1.960.045,22	2.615.861,19

9.2 Finantza tresnen ondoriozko arrisku mailari eta izaerari buruzko informazioa

Kreditu arriskua: Erakundearen kreditu arriskua maizterren ez-ordainketek eragiten dute. Agertzen diren gainerako zordunak, ordainketa aldietan atzerapen posiblea gorabehera, kaudimendunak diren administrazioei dagozkie.

Likidezia arriskua: Likidezia ziurtatzeko eta bere jardueratik eratorritako ordainketa konpromiso guztiei erantzun ahal izateko, balantzeak erakusten duen diruzaintza du erakundeak.

Merkatu arriskua: Erakundeak itunduta dituen maileguetatik, batzuk Euriborrari lotuta daude, diferentzial bat aplikatuta; horiek interes tasaren aldaketen eraginpean daude, baina mailegu gehienak, berriz, subsidiadunak dira eta ez daude aldaketa horien eraginpean.

Hurrengo taulan zehazten dira Erakundearen finantza aktiboaren muga egunen arabeko sailkapenak, zehazki ekitaldia itxi eta hurrengo urteetako bakoitzean, eta azken muga egunera arte, iraungitzen diren zenbatekoenak:



Finantza Pasiboak							
	1	2	3	4	5	5 baino gehiago	GUZTIRA
Finantza inbertsioak	646.788,89	9.000,00					655.788,89
Bestelako finantza aktiboak	646.788,89	9.000,00					655.788,89
Horitzaleentzako aurrerakinak	4.890,79						4.890,79
Merkataritza zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak	5.924.479,20						5.924.479,20
Salmenta eta zerbitzuzingizako bezeroak	838.842,13						838.842,13
Hainbat zordun	3.411.737,40						3.411.737,40
Langileak	1.740,00						1.740,00
Beste kreditu batzuk «Administrazio Publikoekin (Eusko Jaurlaritzan)	1.672.159,67						1.672.159,67
GUZTIRA	12.908,31	9.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	12.908,31

Hurrengo taulan zehazten dira Erakundearen finantza pasiboaren muga egunen arabera sailkapenak, zehazki ekitaldia itxi eta hurrengo urteetako bakoitzean, eta azken muga egunera arte, iraungitzen diren zenbatekoenak:

Zorrak							
	1	2	3	4	5	5 baino gehiago	GUZTIRA
Zorrak	5.918.438,97	5.704.219,28	8.439.452,86	5.508.213,04	5.255.550,07	25.429.794,42	53.255.668,63
Kreditu erakundeetako zorrak	5.918.438,97	5.704.219,28	8.439.452,86	5.508.213,04	5.255.550,07	25.429.794,42	53.255.668,63
Bestelako finantza pasiboak	31.576,69					10.800.031,51	10.831.608,20
Merkataritza hartzekodunak	2.529.240,25						2.529.240,25
Horitzaleak	1.569.444,07						1.569.444,07
Bestelako hartzekodunak	914.467,79						914.467,79
Langileak	32.420,08						32.420,08
Bezeroen aurrerakinak	12.908,31						12.908,31
GUZTIRA	12.908,31	9.000,00	8.439.452,86	5.508.213,04	5.255.550,07	25.429.794,42	53.255.668,63

Erakundeak likidezia arriskuaren kudeaketa zuzurra egiten du, nahikoa eskudiru mantentzean eta finantzaketa eskuragarritasunean oinarrituta, kreditu erraztasun konprometituen eta merkatu posizioak likidatzeko gaitasun nahikoaren zenbateko nahikoaren bitartez.

9.3 Funtz propioak

2025eko eta 2024ko ekitaldietan epigrafe honetan sartutako kontuen mugimendua honako hau izan da:

	Aurreko ekitaldien emaitzak	Bazkideen bestelako ekarpenak	Ekitaldiaren emaitza
2023ko ekitaldiaren amaierako emaitza	(4.666.820,23)	1.613.502,39	0
Bazkideen ekarpena		1.258.385,61	
2024ko emaitza			532.111,32
Akatsak	(49.775,51)		
2024ko ekitaldiaren amaierako emaitza	(4.716.595,74)	2.871.888,00	532.111,32
Bazkideen ekarpena		581.172,00	
2025eko emaitza			1.422.808,62
2024ko emaitzaren banaketa	532.111,32		(532.111,32)
Beste batzuk	3.952,86		
2025eko ekitaldiaren amaierako emaitza	(4.180.531,56)	3.453.060,00	1.422.808,62



10. OHARRA. IZAKINAK

Izakinen osaera honako hau da:

	2025/12/31	2024/12/31
Produktu amaituak	111.194,56	111.194,56
GUZTIRA	111.194,56	111.194,56

Partida horretan erregistratuta daude Goiko Galtzara Berriko eta Katalina Elizegiko sustapenetako soberako garaje plazak, salgai jar daitezkeenak. Produkzio kostuaren arabera balioetsita daude.

Haren balioa ez da balio bihurtarri garbia baino txikiagoa, eta, horregatik, ez da narriaduragatik galerarik kontabilizatu.

Erakundeak aseguru polizak ditu kontratatuta.

11. OHARRA.- EGOERA FISKALA

11.1 Administrazio publikoekiko saldoak

Administrazio Publikoekiko saldoak honako hauek dira:

	2025eko ekita	2024ko ekita
Zorduna	10.826,83	16.212,89
Ogasun Publikoa, konturako ordainketak eta atxikipenak	10.818,77	15.653,41
Ogasun Publikoa, jasandako BEZa	8,06	59,48
Hartzekoduna	156.908,80	129.063,48
Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekoduna	2.647,29	2.785,00
Ogasun Publikoa, PEFZagatik hartzekoduna	73.145,65	57.644,46
Gizarte Segurantzako erakundeak	72.497,10	60.964,18
Gizarte Zehaztasuneko erakundeak	8.618,76	7.669,84

11.2 Mozkinen gaineko zergak

2025eko abenduaren 31n, agintaritza fiskalak oraindik ez ditu ikuskatu Erakundearen preskribatu gabeko lau urteak.



2025eko ekitaldiko diru sarreraren eta gastuen zenbateko garbia eta sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria honela berdintzen dira:

	Galdu-irabazien kontua	Ondare garbiantzuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak				
	2024ko ekitaldiko zenbatekoak					
Ekitaldiko sarreraren eta gastuen saldoa	1.422.808,62 €					
	Gehikuntzak	Murrizketak	Efektugarbia	Gehikuntzak	Murrizketak	Efektugarbia
Desberdintasun iraunkorrak		1.644.566,74 €	(1.644.566,74) €	3.952,86 €		3.952,86 €
Zerga oinarria (zerga oinarria)	(1.644.566,74) €					

2024ko ekitaldiko diru sarreraren eta gastuen zenbateko garbia eta sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria honela berdintzen dira:

	Galdu-irabazien kontua	Ondare garbiantzuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak				
	2023ko ekitaldiko zenbatekoak					
Ekitaldiko sarreraren eta gastuen saldoa	532.111,32 €					
	Gehikuntzak	Murrizketak	Efektugarbia	Gehikuntzak	Murrizketak	Efektugarbia
Desberdintasun iraunkorrak		1.062.805,00 €	(1.062.805,00) €		49.775,51 €	(49.775,51) €
Zerga oinarria (zerga oinarria)	(1.062.805,00) €					

Desberdintasun iraunkorren ondoriozko murrizketak bat datoz errentamendurako higiezinaren jardura kualifikatua duten erakundeekin (2/2014 Foru Arauaren 115.2 artikulua). Erakundeko administratzaileek zerga horri lotutako zenbatekoen kalkulua egin dituzte 2025eko ekitaldirako, baita ikuska daitezkeen zenbatekoen ere, ekitaldi bakoitzaren itxieran indarrean dagoen foru araudiaren arabera.



Erakundeak ez ditu erregistratu erantsitako balantzean zerga oinarri negatiboen ondoriozko zerga geroratuen aktibo jakin batzuk. Hona hemen zerga oinarri negatiboen zenbatekoa eta epemuga:

Sorrera urtea	Epemuga urtea	Zenbatekoa
2005	2035	160.282,19
2006	2036	11.645.883,88
2007	2037	1.388.202,84
2008	2038	1.453.545,81
2009	2039	945.636,63
2010	2040	1.135.389,42
2011	2041	892.569,63
2012	2042	657.642,58
2014	2044	1.323.197,84
2015	2045	1.618.597,22
2016	2046	3.714.957,31
2017	2047	1.363.479,71
2018	2048	387.034,25
2019	2049	256.128,98
2020	2050	318.423,60
2021	2051	1.155.537,53
2022	2052	968.000,50
2023	2053	870.573,04
2024	2054	530.693,68
2025	2055	217.805,26
Zerga oinarri negatiboak guztira		31.003.581,90

11.3 Beste zerga batzuk

Zergen partidaren barruan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga nabarmentzen da, 505.221,72 euroko zenbatekoarekin, eta horietatik 412.244,40 euro errentariei kargatzen zaizkie, errentamendu kontratu batzuetan ezarritakoaren arabera.

12. OHARRA.- SARRERAK ETA GASTUAK

Kanpoko zerbitzuen epigrafearen barruan gasturik adierazgarrienak hauek izango lirateke:

Kanpoko zerbitzuak	2025eko ekit.	2024ko ekit.
Errentamenduak	190.311,58	181.558,08
Konponketa eta kontserbazioa	1.969.880,00	2.506.374,13
Profesional independenteen zerbitzuak	68.109,24	94.843,04
Aseguru primak	156.523,93	199.438,92
Hornidurak	1.069.607,18	966.077,67
Bestelako zerbitzuak	475.021,87	738.380,24
GUZTIRA	3.929.453,80	4.686.672,08



Hau da merkataritza kredituen narriaduraren eta kobraezinen ondoriozko balorazio zuzenketen zenbatekoa:

	2025	2024
Merkataritza eragiketen ondoriozko horniduren galerak, narriadura eta aldakuntza	3.473.457,86	3.357.616,02
Merkataritza eragiketen ondorioz kredituen narriaduraren itzulketa	(3.357.616,02)	(3.032.552,01)
GUZTIRA	115.891,84	325.064,01

▪ **Negoio zifraren zenbateko garbia**

Higiezin errentamendua da erakundearen jardura nagusia, baita diru sarrerak behin eta berriz sortzen dituen jardura ere. 2025eko ekitaldian alokairu ordainagiriak, ondasun higiezin gaineko zergen ondoriozko sarrerak, komunitate gastuak eta errentarekin parekatutako beste sarrera batzuk sortu dira, 9.709.969,89 euroko zenbatekoarekin; horietatik, abenduaren 31n ordaindu gabe zeuden ordainagiriaren % 7,09.

Hau da sarreren banakatzeara:

Jardueraren deskribapena	Negozio zifra	
	2025eko ekitaldia	2024ko ekitaldia
Etxebizitzaren alokairuak	7.549.558,88	7.158.410,85
Garajeen alokairuak	160.199,37	148.849,30
Trastelekuen alokairuak	426,01	262.216,85
Komunitateen kargurako gastuak	177.141,60	262.216,85
Maizterren komunitateen ordainagiriak	1.587.541,23	1.512.899,72
Lokalei lotuta hirugarrenei bidalitako komunitateen gastuak	50.986,01	53.070,17
Ondasun higiezin gaineko zergen ondoriozko sarrerak	412.244,40	335.478,25
GUZTIRA	9.938.097,50	9.733.141,99

▪ **Enpresak bere aktiborako egindako lanak**

Erakundeak ibilgetu gisa aktibatzen ditu alokairura bideratuko diren higiezin eraikuntza beharrezkoak diren eta ordaindu behar dituen gastuak, hala nola obra zuzendaritza, segurtasun eta osasun koordinazioa eta kontrol teknikoko gastuak. 2025eko ekitaldian 1.542.413,40 euro aktibatu dira eta 2024ko ekitaldian 586.494,53 euro izan ziren.



▪ **Gizarte kargak**

Hona hemen xehetasuna:

Gizarte kargak	2025eko ek. it.	2024ko ek. it.
Enpresaren kargurako Gizarte Segurantzza	518.939,61	514.235,49
Elkarkidetzaz	29.427,03	26.359,69
Bestelako gizarte gastuak	39.134,27	58.475,00
GUZTIRA	587.500,91	599.070,18

▪ **Finantza sarrerak**

Eusko Jaurlaritzak ordaintzen dituen alokairuko sustapenak finantzatzeko maileguen interesen zatia jasotzen da. 2025eko ekitaldian 1.137.257,08 eurokoa izan da.

Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetan, eta etxebizitzak alokairuan lagatze aldera, subsidiadun interes tasa urteko % 2 edo % 1 efektibokoa izan da Eusko Jaurlaritzari finantza laguntzak eskatu zitzaizkion unearen arabera. Sustapen horietan, Erakundeak maileguaren lehenengo 20 urteetan dagokion subsidiadun interes tasa ordaindu behar du, finantza erakundeak kobratu behar duen interes tasa efektiboa edozein izanik ere; izatez, finantza erakundeak zuzenean jasotzen du Eusko Jaurlaritzaren eskutik bi interes tasen arteko aldea.

Zuzkidura bizitokiei dagokienez, interes tasa subsidiarioa % 0koa da maileguaren lehenengo 10 urteetan eta % 1ekoa hurrengo 10 urteetan; gainerako urteetan, berriz, diruz lagundu gabe geratzen den interes tasa efektiboa da.

Finantza sarrerak	2025eko ek. it.	2024ko ek. it.
Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako maileguen interesak	1.137.257,08	1.698.377,87
Kreditu interesak, bizitantze eskubidedunak	0,00	2.865,66
Bestelako finantza sarrerak	16.510,63	42.469,50
GUZTIRA	1.153.767,71	1.743.713,03



▪ Finantza gastuak

Kontzeptu hauek jaso dira:

Finantza gastuak	2024koak (€)	2024koak (€)
Kreditu erakundeekiko zorren interesak	1.764.582,13	2.400.711,24
Zorren interesak, biztante eskubidedunak	195.463,08	214.777,60
Bestelako finantza gastuak	0,00	372,35
(€) GUZTIRA	1.960.045,21	2.615.861,19

Biztante eskubidedunekiko zorren interesek biztante eskubidedunekiko kredituen gastuak jasotzen dituzte; horiek gora egin dute, KPIa balio galerari dagokion % 1 baino askoz handiagoa izan baita.

▪ Ibilgetua besterentzearen ondoriozko emaitza eta narriadura

Atal honetan jasotzen da aurreko ekitaldietan azalera eskubideak lagatzeagatik kobratutako kanonen 149.060,75 euroko diru sarrera —urtero emaitzetara egozten dira, emakidak irauten duen urte kopuruaren arabera—.

▪ Beste emaitza batzuk

Diru sarrera gisa 43.116,06 euro jasotzen dira, aldi baterako okupazioaren ondoriozko diru sarrerei (10.442,61 euro) eta aseguruaren kalte ordainei (8.356,88 euro) dagozkienak.

13. OHARRA.- DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Honako taula honetan banakatzen dira balantzean ageri diren jasotako dirulaguntzen, dohaintzen eta legatuen zenbatekoak eta ezaugarriak, eta galdu-irabazien kontuan egotzitakoak:

Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

	2025eko ekitaldia	2024ko ekitaldia Berriro adierazia
- Balantzearen ondare garbian agertzen direnak	86.057.232,02	84.134.799,73
- Galdu-irabazien kontuan egotzitakoak (1)	2.616.124,10	2.666.795,00

(1) Ekitaldiaren emaitzan txertatutako ustiapeneko diru laguntzak barne



Balantzeari dagokion azpimultzoaren edukiaren mugimenduaren analisia, hasierako eta amaierako saldoa adierazita, baita gehikuntzak eta murrizketak ere, taula honetan banakutzen dira:

Balantzean jasotako dirulaguntzak, dohaizntzak eta legatuak, bazkideak ez diren hirugarrenen emandakoak		
	2025eko ekitaldia	2024ko ekitaldia Berriro adierazita
SALDOA EKITALDIAREN HASIERAN	84.134.799,73	80.332.372,30
(+) Ekitaldian jasotakoak (-) Ekitaldiko emaitzetara intsukdatutako dirulaguntzak	3.731.569,29	5.482.862,95
SALDOA EKITALDIAREN AMAIERAN	-1.809.137,00	-1.680.435,52
	86.057.232,02	84.134.799,73

Balantzean jasotzen dira:

- Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak, Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren artean babes publikoko etxebizitzak sustatzeko lankidetz hitzarmenak gauzatzearen ondoriozkoak. Hitzarmen horien zenbatekoa 37.294.749,06 eurokoa da.
Emaitzei 1.014.118,78 euro egotzi zaie.
- PARVISAREN dirulaguntzak, 865.598,24 euro. Emaitzei 72.236,43 euro egotzi zaie.
- Udalak dohainik lagatuko lursailak, 25.579.824,28 euro.
- Etxebizitza sustapena finantzatzeko Udalaren dirulaguntza 17.596.006,52 eurokoa. Ekitaldi honetan 3.087.000,00 euroko dirulaguntza jaso du. Emaitzei 545.379,43 euro egotzi zaie.
- Udalaren dirulaguntza, Berio, Benta Berri eta Ategorrietako adinekoentzako apartamentuak finantzatzeko, 3.782.122,36 euro. 2025eko ekitaldian, sozietateak 661.710,79 euroko dirulaguntza jaso du. Emaitzei 157.280,38 euro egotzi zaie.
- Udalaren dirulaguntza, Gizarte Ongizaterako lokal bat gaitzeko, 483.130,27 euro. Emaitzei 10.541,02 euro egotzi zaie.
- Basotxiki eta Zarategi 71ko obretarako Udaletik jasotako 469.467,39 euroko dirulaguntza. Emaitzei 9.580,96 euro egotzi zaie.



14. OHARRA.- GERORA IZANDAKO GERTAKARIAK

Ekitaldiaren itxieraren ondoren, ez da ezer garrantzitsurik gertatu, Urteko Kontu horiei ez eragin arren, horien berri izatea baliagarria dela kontuak ulertzeko, ezta funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioari eragiten dionik ere.

15. OHARRA.- ELKARRI LOTUTAKO ALDEEKIN EGINDAKO ERAGIKETAK

Udalak —erakunde nagusi den heinean— eta Erakundeak honako eragiketa hauek egiten dituzte elkarrekin:

- Donostiako Udalak urtero igortzen dizkio Erakundeari ondasun higiezinaren gaineko zerga eta beste zerga batzuk.
- Donostiako Udalak urtero igortzen dizkio Erakundeari zenbait kontzepturen ondoriozko gastuak: ur-hornidura, zaborrak.
- Udalak dirulaguntzak eta maileguak ematen dizkio Erakundeari, babes publikoko etxebizitzako zerbitzua finantzatzeko.
- Erakundeak zenbait kontzepturen ondoriozko gastuak fakturatzen dizkio urtero Udalari, hala nola alokairuak, komunitate gastuak.

Honako taula honetan islatzen da Erakundearekin lotzen diren aldeekin egindako eragiketeki buruzko informazioa:

2025eko ekitaldian elkarri lotutako aldeekin egindako eragiketak	
	Donostiako Udala
Ustiapeneko dirulaguntzak	329.965,16
Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzak egozte	795.018,22
Alokairuen fakturazioa eta Udalak ordaindutako gastuak	385.999,72
Ondasun higiezinaren gaineko zergak eta Udalak igorritako beste zerga batzuk	510.070,46
Udalak igorritako hornikuntza gastuak	81.432,80

2024ko ekitaldian elkarri lotutako aldeekin egindako eragiketak	
	Donostiako Udala
Ustiapeneko dirulaguntzak	456.088,45
Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzak egozte	581.813,40
Alokairuen fakturazioa eta Udalak ordaindutako gastuak	270.307,76
Ondasun higiezinaren gaineko zergak eta Udalak igorritako beste zerga batzuk	539.029,98
Udalak igorritako hornikuntza gastuak	207.640,12



2025eko ekitaldian elkarri lotutako aldeekin gauzatzeko dauden salbidoak	
	Donostiako Udala
AKTIBO KORRONTEA	
Merkataritza zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak	3.341.282,16
PASIBO KORRONTEA	
2. Merkatari-tza hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak	107.244,21

2024ko ekitaldian elkarri lotutako aldeekin gauzatzeko dauden salbidoak	
	Donostiako Udala
AKTIBO KORRONTEA	
Merkataritza zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak	2.855.254,46
PASIBO KORRONTEA	
2. Merkatari-tza hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak	97.789,71

Kontseilari-entzako eta zuzendarientzako aseguru bat kontratatu da, haien eginkizunak betetzean izan ditzaketen erantzukizunak estaltzeko.

16. OHARRA.- BESTELAKO INFORMAZIOA

Erakundeko langileen sexuaren araberako banaketa, ekitaldia amaitzean, kategoria eta maila nahikotan xehatuta honako hau da:

	Guztira		Ezkatimena		Guztira	
	2025eko ekit.	2024ko ekit.	2025eko ekit.	2024ko ekit.	2025eko ekit.	2024ko ekit.
Goi zuzendariak (kontseilariak ez)	1	1			1	1
Zientzia, adimen eta laguntzako teknikariak eta profesionalak.	6	5	9	9	15	14
Administrari motako enplegatutak	2	2	22	21	24	23
Guztira	9	8	31	31	40	38

Ekitaldian enplegatutako pertsonen batez besteko kopurua, kategoriaka adierazita, honako hau da:

	Guztira	
	2025eko ekit.	2024ko ekit.
Goi zuzendariak (kontseilariak ez)	1	1
Zientzia, adimen eta laguntzako teknikariak eta profesionalak.	15	13
Administrari motako enplegatutak	23	23
Errealitate batez besteko langileak, guztira	39	37

2023ko azaroaren 14an, Donostiako Lehen Auzialdiko 5. Epaitegiak, 1084/2024 prozedura arruntaren gainean hartutako ebazpen judiziala jakinarazi zion Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari. Ebazpen horren bidez, IZA OBRAS Y PROMOCIONES SAs aurkeztutako demanda helarazi zitzaigun, erantzuna emateko.



Aurkeztutako demandaren xedea da Erakundeari, alde batetik, 235.478,87 euroko erreklamazioa egitea, "IN.OS MONS" HJEn g.00 partzelan — ekipamendu komunitarioa— adinekoentzako apartamentu eraikin baten obraren likidazioa egiteko Intxaurren, demandatzailearekin kontratatua, azken ziurtagiria jaso gabeko unitateengatik, eta, bestetik, 72.405,50 euroko erreklamazioa egitea, obra hartzean izandako atzerapenaren ondoriozko gailkostuengatik eta 12.553,86 euro berandutze interesengatik.

Emandako epearen barruan, eta 2023ko azaroaren 21eko datarekin, auto horietan aurkeztu ginen eta demandari erantzun genion, demanda horren aurka eginez. Era berean, errekonbentzioa egin genuen IZA OBRAS Y PROMOCIONES SAREN aurka, 1.121.437,71 euro erreklamatzeko, kontratatutako obra epearen barruan ez betetzeagatik. Halaber, sozietate hori aipatutako zenbatekoa (gehi berandutze interesak eta sortutako kostuak) ordaintzera zigortzeko eskatu genuen.

Donostiako Lehen Auzialdiko 5 zenbakidun Epaitegiak epaia eman zuen 2024ko maiatzaren 10ean. Epaia horretan, Donostiako Etxegintzak IZA Obras y Promociones SAREN aurka aurkeztutako errekonbentzio demanda osorik baiesten zen, eta azken hori 1.102.099,25 euro ordaintzera kondenatzen zuen. Errekurritutako epaia hori ebazteke dago.

17. OHARRA.- INFORMAZIO SEGMENTATUA

Erakundearen negozio zifraren banaketa, jardura kategoriaren arabera, taula honetan zehazten da:

Jardueraren deskribapena	Negozio zifra	
	2025eko ekitaldia	2024ko ekitaldia
Etxebizitzaren alokairuak	7.549.558,88	7.158.410,85
Garajeen eta trastelekuen alokairuak	160.625,38	148.849,30
Komunitateen kargurako gastuak	177.141,60	262.216,85
Maizterren komunitateen ordainagiriak	1.587.541,23	1.512.899,72
Lokalei lotuta hirugarrenei bidalitako komunitateen gastuak	50.986,01	53.070,17
Ondasun higiezinaren gaineko zergen ondoriozko sarrerak	412.244,40	335.478,25
GUZTIRA	9.938.097,50	9.470.925,14



18. OHARRA. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa. Hirugarren xedapen gehigarria. Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen "informazio betebeharra".

Merkataritza eragiketetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa honako hau da:

	2025 Egunak	2024 Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	57,06	30,06
Ordaindutako eragiketen ratioa	36,30	31,15
Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa	29,43	18,72
	Zenbatekoa	Zenbatekoa
Egindako ordainketak guztira	5.783.724,40	4.216.605,51
Egin gabeko ordainketak guztira	336.445,84	404.201,28

Berankortasun araudian ezarritako gehieneko epea baino epe laburragoan ordaindutako fakturen kopurua eta moneta bolumena, eta fakturen guztizko kopuruaren eta hornitzaileei egindako ordainketen guztizkoaren gaineko ehunekoa honako hau da:

	2025 Eurotan	2024 Eurotan
Eurotan ordaindutako moneta bolumena	3.018.683,66	3.078.671,14
Ordaindutako faktura kopurua	5.994,00	5.063,00
Ordaindutako diru kopuru osoarekiko suposatzen duen ehunekoa	% 68	% 73
Ordaindutako faktura guztien gaineko ehunekoa	% 82	% 79

2025eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion kudeaketa txostena.

2025EAN EGINDAKO JARDUERAK.

Erakundeak askotariko jarduerak egiten ditu esleituta dituen eskumenen esparruan. Horiek honela taldekatu daitezke:

- Babes publikoko etxebizitzak sustatzea eta eskuratzea.
- Udal etxebizitzaren parkea administratzea.
- Birgaitzeko laguntzak kudeatzea.
- Etxebizitza hutsen kasurako bitartekaritza, Alokabide programaren bidez.
- Hirigintza esparruak kudeatzea.
- Babes publikoko etxebizitzak sustatzea eta eskuratzea.

2024. urtearen amaieran, Kanpandegi kaleko 2. zenbakian dagoen eraikina birgaitzeko eta 15 apartamentu eraikitzeko lanak hasi ziren, eraikin hori egokitzeko eta, alokairu bidez, adinekoentzako zuzkidura bizitoki gisa zerbitzu publikora bideratzeko.

Sustapen horren aurrekontua, guztira, 2.931.000,00 eurokoa izango dela kalkulatu da. Eta, hori finantzatzeko, Administrazio Kontseiluak, 2025eko martxoaren 28an, Kutxabank SArI Donostiako Udalaren berme pertsonala duten bi mailegu esleitu zizkion; biak 25 urteko epean eta 2 urteko gabealdiarekin. Horietako bat —1.500.000,00 euroko tasa aldakorra du, 12 hilabeterako Euriborraren berdina, gehi %1,24ko diferentziala— Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du. Bestea, 745.000,00 eurokoa eta % 3,57ko tasa finkoa duena, ez dago diruz lagunduta. Finantzaketa hori osatzeko, Eusko Jaurlaritzak 750.000,00 euroko dirulaguntza eta Donostiako Udalak 76.000,00 euroko dirulaguntza eman dute, eraikinean dagoen zahar etxea zaharberritzeko lanak finantzatzeko.

Entitateak alokairu erregimenean kudeatzen dituen sustapenen irisgarritasuna eta energia efizientzia hobetzeko jardueri dagokienez, 2025. urtean María Dolores Goia plazako 1etik 6ra bitarteko eraikinetan begiratokiak ordeztzeko eta unean uneko beste konponketa batzuk egiteko obrak hasi dira. Gutxi gorabeherako inbertsioa: 566.062,85 euro.

Biztantze eskubidean laga ziren zuzkidura bizitokiei dagokienez, eta Kontseiluak erregimen horretan lagatzen ez jarraitzea erabaki ondoren, 2025ean guztira 661.711,79 euro itzuli zaizkie biztantze eskubidedunei Berion 2 apartamentu berreskuratzeko, Ategorrietan 3 eta Benta Berrin beste 3. Bizitegi horiek alokairuan lagako dira.

Azkenik, eta jarduketa inbertitzailea ez den arren, adierazi behar da Donostiako Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegiak, 2024ko maiatzaren 10eko datarekin, jakinarazi zuela Donostiako Etxegintzak IZA Obras y Promociones SArEn aurka aurkeztutako demanda errekonbentzionala osorik baiesten duen epaia. Horren arabera, enpresa Donostiako Etxegintzari 1.102.099,25 euro ordaintzera kondenatu zuten. Errekurritutako epai hori ebazteke dago.

- Udal etxebizitzaren parkea administratzea.

2025. urtea amaituta, babes publikoko alokairuko etxebizitzaren udal parkea honako hauek osatzen dute: babes ofizialeko 1.506 etxebizitzek, gazteentzako 283 zuzkidura bizitokik eta adinekoentzako 179 zuzkidura bizitokik.

2025ean, batez besteko okupazioa aurreko urtekoaren oso antzekoa izan da: % 97koa babes publikoko etxebizitzetan, % 85koa adinekoentzako zuzkidura bizitokietan eta % 81koa gazteentzako bizitokietan. Hala ere, batez besteko horiek zehaztu egin behar dira.

Hala, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetan maizterren txandakatzeak urriak dira, baina etxebizitza bat libre geratzen denean, denbora pixka behar da etxebizitza berregokitzeko eta maizter berria hautatzeko; horrek, okupazioaren ehuneko baldintzatzen du eta urtean okupatu gabeko etxebizitzaren batez besteko kopurua 36 inguruan kokatzen du.

Adinekoentzako apartamentuen kasuan, batez bestekoa baxuagoa da, Intxaurrondon 15 apartamentu kupo berezi berri baterako gorde baitira. Apartamentu horiek kontuan hartzen ez baditugu, batez bestekoa % 90ekoa izango litzateke. Oraindik BOEarenak baino txikiagoa izaten jarraitzen du, baina kontuan hartu behar da alokairurako berreskuratutako biztantzaren eskubideko apartamentuek berregokitze handia behar dutela.

Gazteentzako apartamentuen egoera desberdina da. Izan ere, txandakatzeak askoz ere handiagoak dira, eta okupazioak izango % 68ren eta Baratzegiko % 89ren artekoak dira.

Babes ofizialeko etxebizitzaren batez besteko alokairuak 353 eurokoak izan dira, aurreko urteko 337 euroen aldean, errentak eguneratzeko erreferentzia indizea aplikatu delako eta errenta familia unitatearen diru sarreretara egokitu delako. Adinekoentzako zuzkidura bizitokien batez besteko alokairua 282 eurokoa izan da, aurreko urteko 278 euroen aldean. Eta gazteentzako zuzkidura bizitokietarako, 291 euro (iaz, 286 euro).

Batez besteko horiek ere zehaztu egin behar dira. Horrela, berrikusi ez diren sustapenik zaharretako babes ofizialeko etxebizitzek hilean 273 euro inguruko batez besteko errentak dituzte. Aldiz, kontratuak berrikusi diren sustapenetan, errentak batez beste 408 eurotan daude. Bestalde, baremazioa esleipen sistema gisa erabili den sustapenetako etxebizitzetan errentak murriztu egin dira, eta hileko batez besteko errenta 289 eurotan kokatu da.

Erakundeak alokairuan lagatako 393 garaje ere kudeatzen ditu, eta horien batez besteko prezioa 60 eurokoa da hilean —2024an 57 eurokoa zen—, eta % 56ko okupazioa izan zuten. Horrez gain, 8 trasteleku ere kudeatzen ditu, eta horietatik bi bakarrik alokatzen dira, 30 euroko prezioan.

Era berean, hasiera batean erregimen horretan laga ziren adinekoentzako 197 zuzkidura bizitokietatik 117 biztantzaren eskubidean lagata ditu. 2025. urtearen amaieran, Erakundeak 9.981.031,88 euroko zorra zuen biztantzaren eskubidedunekin.

Kopuru hori lortzen da hasieran biztantzaren eskubidedunek ordaindu zuten prezioari gehituta beren aldeko KPIaren igoeraren eta bizitokiek jasaten duten balio galeraren arteko aldea, biak eskuratze datatik zenbatzen hasita. Hala, 117 apartamentuengatik biztantzaren eskubidedunek ordaindu zituzten 8.071.631,15 euroei 3.327.094,41 euro gehitu behar zaizkie —erosi zirenetik metatutako KPIari dagozkionak— eta 1.417.693,68 euro deskontatu balio galera kontzeptuagatik.

Erakundeak, halaber, finken administratzaile gisa dihardu, eta maizterrei dagozkien komunitate gastuak jasanarazten dizkie. Horrela, errentaz gain, kuota finko bat ere igortzen zaie hiler. Kuota horretan sartzen dira eremu komunentzako gastuak eta galdara zentralizatua duten komunitateetako ur bero sanitarioak eta berogailuak eragindako gastua. Banakako kontsumoak ere igortzen zaizkie, ur bero sanitarioaren, berokuntzaren eta ur hotzaren kontzeptupean, hala dagokionean.

Hala, 2025ean, batez beste hilean 71 euro bideratu dira komunitateko gastuetarako; aurreko urtean, berriz, 78 euro. Hala ere, eta sustapen bakoitzean ematen diren zerbitzuen arabera, gastu horiek asko aldatzen dira. Horrela, okerren dimentsionatutako sustapenetan edo galdara komunitarioa dutenetan gastu horiek hilean 72 eta 130 euro bitartekoak dira, eta Txomin Eneako sustapena da garestiena; gainerako sustapenean, berriz, gastu horiek hilean 16 eta 67 euro bitartekoak dira.

Azkenik, urteko OHZ hamabi hilekotan igortzen zaie, salbuetsita dauden zuzkidura bizitokietan izan ezik. Hileko zenbatekoa, batez beste, 28 eurokoa da, kalifikazio epea amaitu zaien eta, beraz, % 50eko hobaria galdu duten sustapenetan izan ezik; kasu horretan hilean 42 euroraino igotzen da.

- [Birgaitzeko laguntzak kudeatzea.](#)

Esleitutako ondare eraikia birgaitzeko jarduerari dagokionez, Erakundeak hitzarmen bat sinatu zuen Udalarekin 2014ko ekainaren 3an, Donostiako bizitegi eraikinen eta etxebizitzaren irisgarritasunerako eta birgaitzeko dirulaguntzak emateko Ordenantza kudeatzeko. Ordenantza hori Udalak osoko bilkuran onartu zuen 2018ko ekainaren 28an.

2025ean ez da laguntza berriak emateko deialdirik ireki, udal aurrekontuan kontsignaziorik ez dagoelako. Hala ere, aurreko deialdietako espedienteak kudeatzen jarraitu da.

Udalak zuzenean ordaintzen ditu onartutako dirulaguntzak. Horiek Udalaren dagozkion aurrekontu partidetan kontabilizatzen dira eta ez dute kontabilitate islarik Erakundearen kontuetan.

Bestalde, 2022ko abenduaren 2an Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren bidez, Erakundeak bere gain hartzen ditu 853/2021 EDko 3., 4. eta 5. Laguntza programetako eta 2021eko ekainaren 21eko Aginduko 1. eta 2. lerroetako espedienteak kudeatzen laguntzen duen entitate eta errehabilitazio bulegoaren funtzioak.

2025eko abenduaren 31ra arte kudeatutako 3. eta 4. programetako espedienteetan 2.076 etxebizitza sartu dira.

Hitzarmen horretan jasotzen denez, Eusko Jaurlaritzak, egindako kostuak justifikatu ondoren, gutxienez 400,00 euro ordainduko ditu izapidetutako etxebizitza bakoitzeko; izan ere, izapidetutako etxebizitza birgaitzen bada, aurreko zenbatekoa 600,00 gehiagokoa izango da; zenbateko hori 800,00 eurokoa izan daiteke birgaitutako etxebizitza 3. programakoa bada eta eraikinaren birgaitzeak laguntzen araudian ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Izapidetutako espedienteetan sartutako etxebizitzaren kopurua kontuan hartuta, dirulaguntza 1.884.800,00 eurokoa izango litzateke gutxienez, eta 2.091.400,00 eurokoa gehienez. Bestalde, Erakundeak 1.640.132,84 euroko gastuak izan ditu 2022ko erdialdetik 2025eko abenduaren 31ra arte, eta oraindik urtebete geratzen da hitzarmena amaitzeko. Hala, guztira, 2.120.000,00 euroko gastuak izango dira.

Azkenik, Erakundeari udalaren titulartasuneko lokal bat atxiki zitzaion Roteta Goikoa 21ean, hurbileko bulego bat ezartzeko, Altza auzoko Hiri Berroneratze Integraleko Proiektuaren barruan higiezinak osorik birgaitzeko obrak egiten dituzten jabekideen erkidegoentzako dirulaguntzen bidez zuzeneko laguntzak kudeatzea ahalbidetuko duena.

Bulego horrek 212.350,75 euroko gastuak eragin ditu 2025ean, eta Donostiako Udalaren zenbateko bereko ekarpen batekin finantzatu dira.

Laburbilduz, bederatzi jabekideen erkidegok 5.868.827,78 euroko laguntzak jaso dituzte diruz lagun daitekeen 8.416.253,25 euroko obra aurrekonturako; hau da, batez beste, diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 70eko laguntzak jaso dituzte. Gainera, 53 espediente diruz lagundu dituzte erkidego horietan egoera ahulean dauden pertsonentzat; guztira, 531.494,36 euro. Azkenean laguntzarik jaso ez zuten beste 14 erkidegok 71.336,03 euroko dirulaguntzak jaso dituzte, eskaeran aurkeztu zuten aurreproiektuaren kostuaren zati bat finantzatzeko.

- [Etxebizitza hutsen kasurako bitartekaritza, Alokabide programaren bidez.](#)

Erakundeak eskaintzen duen beste zerbitzu bat hutsik dauden etxebizitzetarako bitartekaritza da, Alokabide bere programaren bidez.

Erakundeak merkatukoak baino merkeago ateratzen ditu partikularren etxebizitzak alokairuko merkatu pribatura, eta aholkularitza eta laguntza zerbitzua eskaintzen die jabeei, baita etxeko arrisku anitzeko aseguruak eta aseguru ordaindu gabeak ere.

Aseguru horien kostua 31.954,36 eurokoa izan da 2025ean.

Joerak aditzera ematen duenez, programa horren bidez kudeatutako partikularren etxebizitzaren kopurua behera egiten ari da urtez urte. Hala, 2024. urte honetan, saldo garbia 14 etxebizitza gutxiagokoa izan da, eta 2025. urtearen amaieran Alokabiden kudeatzen diren etxebizitzaren kopurua 205ean geratu da. Horrek esan nahi du % 56 jaitsi dela erakarritako etxebizitzaren kopurua, 2016ko datuekin alderatuta; izan ere, urte horretan 369 etxebizitza kudeatu ziren.

Alokairuaren batez besteko prezioak hilean 666 euro ingurukoak dira, aurreko urteko 651 euroen aldean. Kopuru horiek Donostiako batez besteko alokairutik oso urrun daude, eta, ondorioz, programa ez da oso erakargarria jabe askorentzat.

- [Hirigintza esparruak kudeatzea.](#)

Hirigintza Kudeaketako Sailak jarraipena ematen die aurreko ekitaldietan lurzoruen kudeaketarekin lotuta egiten ziren jarduketei, baita hainbat udal sailekin eta Erakundearen beraren sailekin koordinatuta egiten ari diren proiektuen kudeaketa eta sustapen jarduketara berriei ere.

Jada egikaritzen ari ziren jarduketari dagokienez, Txomin Enea esparruan, gaur egun, Txomin Enea ABEEaren hirigintza emakidaren kudeaketarekin eta kontrolarekin lotutako lanak egiten jarraitzen da. Batez ere, esparruan hautemandako eraikuntza akatsak konpontzeko exijitzeari lotuta emakidadunarekin egin diren azken jarduketak, esparruan beste bizileku bat eman zitzaizen pertsonekin lotutako gorabeherak ebaztea, beste bizileku bat eman zaienentzat eta erakundearentzat berarentzat egindako eraikinetan akatsak emakidadunari erreklamatzeko, hitzarmenak eta akordioak formalizatzea, besteak beste. Orain, Jabekideen Elkarteetako batek Udalaren aurkako demanda aurkeztu zuen eta gai hori udal aholkularitza juridikoarekin batera lantzen ari dira.

Era berean, esparruko lurzoruak juridikoki eta erregistroan erregularizatzeko lanean aritu dira — anbulatorio berria eraikitzeke erabiliko den partzela Osakidetzari entregatzea aurreikusita baitago—, hari lotutako erregistro kargak altxatzeko lanean, akordioak formalizatzeko lanean, etab.

Eskuzaitzeta esparruan, berriz, honako lan hauek egin dira: partzelak Sprilur SAri eskualdatu eta saldu; udal partzelen erosleek egindako erreklamazioei erantzun; beste administrazio sektorial batzuekin (URA, GHK, Iberdrola, etab.) kudeatu, udal sail desberdinekin egindako jarduketak koordinatu, proiektuari lotutako ebaluazio ekonomikoak egin, eta interesdunei informazioa etengabe eman.

Beste jarduketa batzuei dagokienez, Amara kaleko 11-13 eta 17 zenbakietan dauden Udalaren titulartasuneko higiezinak eraistearen ondorioz birkokatutako pertsonen jarraipena egiten ari da, eraikin horiek okupatzaileentzat eta oinezkoentzat eragiten zuten arrisku egoera saihestuz. Alde horretatik, etengabeko jarraipena egiten zaie eraginpean daudenekin udalak hartutako konpromisoei, haiei etxebizitzak husteko epeak benetan betetzea eskatzen zaie, aldi baterako birkokatzeak gauzatzeko aldi baterako lagatako etxebizitzak Eusko Jaurlaritzarekin kudeatzen dira, etxebizitza horiek birgaitu egiten dira, etab.

Alde Zaharreko telekomunikazio sarea berritzeko proiektuarekin lotuta, proiektu horren kudeaketa koordinatzeko azken lanak egiten ari dira, hala nola koordinazio bilerak hainbat sailekin. Era berean, kudeaketan laguntzen jarraitu da, kaian zuntz optikoko sarea zabaldu ahal izateko.

Era berean, adierazi behar da, kudeaketa lanekin erlazionatuta, Altza auzoa birgaitzeko jarduketa sustatzeko udal proiektuaren kudeaketarekin lotutako jarduketan multzoa koordinatzen ari direla, eta, zehazkiago, bere higiezinaren birgaitze integraleko jarduketarekin lotuta, xede horretarako Eusko Jaurlaritzaren laguntza programarekin erlazionatua (Laguntzen oinarriak idaztea eta aldatzea, ebazpenak ematea, administrazio eta aurrekontu espedienteak koordinatzea, eraginpean daudenei informazioa ematea, jarduketari lotutako koordinazioa egitea Eusko Jaurlaritzarekin, Jarduketak koordinatzea Donostiako Sustapenarekin, ordainketak kontrolatzea, etab...).

Eusko Jaurlaritzarekin, Visesarekin, Sepesekin eta beste erakunde batzuekin akordioak negoziatzen ari dira, babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura bizitokiak hainbat hirigintza esparrutan (Lorategi Hiria, Loiolako Erriberak, Morlans...) egin ahal izateko lurzoruen doako lagapenari lotutako akordioak eta hitzarmenak formalizatzeko.

Etxebizitzari lotutako dokumentu arau emaileak prestatzen lan egin dute, hala nola EIOZaren araudi fiskala aldatzen, Etxebizitza Tasatuen Ordenantza berria egiten, etab.

Azkenik, babes publikoko etxebizitza (BOE eta Tasatuak) bultzatu eta garatzeko baldintza agiriak planifikatu eta osatzeko lan handia egiten ari dira, Infernua, Añorga Geltokia, Diario Vasco eta beste esparru batzuetan.

2025EKO JARDUEREN EMAITZA EKONOMIKOA.

Negozio zifraren zenbateko garbia alokairu erregimeneko babes publikoko etxebizitzaren udal parkeko administrazioaren berezko sarreretatik elikatzen da nagusiki.

Urtero errepikatzen diren kontzeptuak biltzen dira ondoren, aurreko urtearekin alderatuta izan duten aldaketa adieraziz:

- etxebizitzaren alokairuak: 7.549.558,88 euro (+% 5,46);
- garajeen alokairuak: 160.199,37 euro (+% 7,80);
- trastelekuen alokairuak: 426,01 euro (+% 77,50);
- komunitate gastuak eta maizterrei jasanarazitako beste udal hornidura eta zerbitzu batzuk: 1.587.541,23 euro (+% 4,03);
- kontratuaren arabera jasanaraz daitekeen ondasun higiezinaren gaineko zerga: 412.244,40 euro (+% 22,88);
- jabe bat baino gehiagoko komunitateen kontura kontratatzen diren eta gero jasanarazten zaizkien hornidurak eta zerbitzuak: 177.141,6 euro (-% 32,44);
- Okupatzen dituzten lokalengatik hirugarrenei igortzen zaizkien komunitate gastuak eta beste zerbitzu batzuen gastuak: 50.986,01 euro (-% 3,93).

Laburbilduz, 2025ean, guztizko negozio zifra 9.938.097,50 eurora iritsi da, hau da, 2024arekin alderatuta 467.172,36 euro gehiago (+% 4,93). Igoera hori, funtsean, bi kontzepturengatik gertatu da.

Lehenik eta behin, etxebizitzaren alokairuen ondoriozko diru sarrerek gora egin dute errenten eguneratzeagatik errentamenduaren erreferentzia indizearekin, baita errenta familia unitatearen diru sarreretara egokitzen duten kontratuen berrikuspenengatik ere. Eta, bigarrenik, OHZ igo da, sustapen batzuk etxebizitza babestu gisa deskalifikatu direlako eta OHZren kuota % 50eko hobaria galdu delako behin betiko kalifikazioa eman zenetik hiru urte igaro ondoren.

2025ean maizterrei luzatutako 9.709.969,89 eurotik, dela errenta, dela antzeko beste gastu batzuk, 687.991,05 euroko zenbatekoa duten kobratu gabeko ordainagiriak daude, hau da, ordaindu gabeko ehunekoa % 7,09 da, iazkoaren (% 7,49) antzekoa.

Urte amaieran kobratzeke dauden zorrak 4.308.991,32 eurokoak dira guztira, eta horien artean ordainagiri berrituak daude —dagozkien zor aitortzen bidez— 861.768,92 euroan; ordainagiri horiek 2026tik 2057ra arte igorriko dira.

Urtebetetik gorako antzintasuna duten ordainagiri guztiak hornitzen dira, nahiz eta berrituta egon, leudekeen fidantzak eta aurrerakinak deskontatu ondoren. Kontuetan ordaindu gabekoetarako hornidura 3.473.457,86 eurokoa da, kaudimengabeziatarako aurtengo zuzkidura (115.841,84 euro) egin ondoren.

Langile gastuei dagokienez, % 4,11ko igoera izan da. Horren arrazoia da udal langileen ordainsariak % 2,5 igo izana, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu ondoren. Lanpostu hutsak betetzeko langileen aldi baterako kontratazioa ere kontuan hartu behar da. 2025. urtearen amaieran, 40 langile zeuden kontratatuta erakundean, 2024. urtearen amaieran 38 ziren bitartean.

Ustiapeneko beste gastu batzuen atalean, kanpoko zerbitzuak ez dira emaitzen kontuan islatzen den bezainbeste jaitzi; izan ere, 2024an, konponketetarako eta kontserbaziorako kontu sailaren barruan, 676.713,45 euro jasotzen ziren urte horretako esku hartze espezifiko handietarako. Jaitziera horri, gainera, aurrezkoa gehitu beharko litzaioke, kaudimen gabeziatarako zuzkiduraren (% 64 murriztu da) eta zergen murrizketa dela eta.

Hornikuntzen barruan, Kanpandegiko obrak eta Maria Dolores Goia plazako obrak sartzen dira. Horiek inbertsio gisa tratatzen dira, eta, beraz, dagokion diru sarrera sortzen da enpresak bere aktiborako egindako lanen partidan.

Beste ustiapen sarrera batzuk izeneko epigrafean Erakundeak 2025ean eskuratu dituen ustiapeneko dirulaguntzak jasotzen dira. Horien artean dago Eusko Jaurlaritzatik jasotzen duen konpentsazioa, bere laguntza programen birgaitze espedienteen kudeaketan izandako kostuengatik; zenbateko hori, aurten, 477.021,94 eurokoa izan da. Halaber, Donostiako Udalaren ekarpena jasotzen da, hurbileko bulegoaren kudeaketak 2025ean izan dituen kostuak estaltzeko; ekarpen hori 212.350,75 eurokoa izan da. Horrez gain, gastu arruntetarako Udalak egindako 117.614,41 euroko ekarpena ere jasotzen da.

Azkenik, azpimarratu behar da ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen egozpena handitu egin dela, Udalak urtero ekarpenak egiten dituelako bai maileguak amortizatzekeo bai bizileku eskubideak iraungitzeko.

Gainerako epigrafeek ez dute aldaketa nabarmenik izan; eta, beraz, ustiapen gastu eta sarrera horiek guztiek ustiapen emaitza positiboa izatea (2.229.086,12 euro) ekarri dute, 2024an baino ia % 59 gehiago.

Finantza emaitzari dagokionez, promozioak finantzatzen dituzten maileguen interesen ondoriozko finantza gastuak 75.000,00 euro inguru jaitzi dira aurreko urtearen aldean, finantza erakundeekiko zorra murriztu izanaren ondorioz. Eta, aurreko urtearekin alderatuta, biztante eskubidedunekiko zorraren interesen ondoriozko finantza gastuak 19.000,00 euro inguru murriztu dira, biztante eskubidedunekiko zor txikiagoaren ondorioz. Horren guztiaren ondorioz, finantza emaitza negatiboa izan da, 806.277,50 eurokoa, aurreko urtean baino zertxobait hobea.

Hortaz, 2025eko ekitaldiko emaitza positiboa izan da, hots 1.422.808,62 eurokoa.

Azken finean, eta Donostiako Udalaren mendeko erakundea den aldetik, batez ere merkatuko sarrerekin finantzatu baita 2025ean, % 95eko portzentajea (Kontuen Europako Sistema 95ek aplikatzen dituen irizpideen arabera neurtuta), Erakundeak aurrekontu egonkortasunaren printzipioa betetzen du, izandako galerak saneatzeko ez baita beharrezkoa Udalaren beraren egonkortasun egoeran aurreikusi gabeko baliabide zuzkidurarik egitea.

JARDUEREN FINANTZAKETA 2025EAN.

Kontuan hartu gabe, alde batetik, Udalak Erakundearen bitartez emandako dirulaguntzak Donostiako udalerriko bizitegi eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko obren sustapen pribatua bultzatzeko (horiek Udalak berak zuzenean ordaintzen ditu osorik), eta, bestetik, errentamendu babestura bideratutako etxebizitzetan egindako inbertsioak, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta maileguekin finantzatzen direnak, Erakundearen sarrera errepikakorren iturri ia bakarra dira alokairuen, komunitate gastuen eta antzeko beste gastu batzuen kontzeptupean jasotzen dituen errentak. Horregatik da garrantzitsua berankortasuna kontrolatzea.

Sarrera horien bidez, Erakundeak hainbat zerbitzuren langile gastuak eta hainbat jardueraren funtzionamendu arrunteko gastuak estaltzen ditu, baita alokairu sustapenak finantzatzeko erabiltzen diren maileguen interesak ere, baina ez du behar adina baliabide sortzen mailegu horien amortizazio osoa ordaintzeko.

Hala, 2025ean guztira 5.792.399,96 euroko maileguak amortizatu dira, eta sarreraren eta gastu arrunten arteko aldeagatik sortutako baliabideak 3.040.368,14 eurokoak izan dira, Udalaren ekarpen korranteak barne hartuta.

Hortik sortu da Donostiako Udalarik maileguak amortizatzeko ekarpen korrante bat eskatzeko beharra: aurtengoa, 2025ean, ekarpena 3.087.000,00 eurokoa izan da.

JARDUEREN BILAKAERA.

Erakundeak, Eusko Jaurlaritzak errentamendu babesturako (diruz lagundutako maileguak eta itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak) ematen dituen finantza laguntzak mantentzen diren bitartean, alokairuko babes publikoko etxebizitzaren udal parkea handitzeko udal politika garatzen jarraitu ahal izango du, errentamendu erregimeneko etxebizitza eskatzaileen eskari gero eta handiagoari erantzuteko.

Hala ere, autonomia erkidegoko araudian ezarritako alokairu tarteak kontuan hartuta, Udalaren urteko ekarpenak guztiz beharrezkoak izango dira maileguen amortizaziotik eratorritako betebeharreari aurre egin ahal izateko. Hala, 2026rako 3.900.000,00 euroko udal ekarpena aurreikusi da.

Puntu honetan, aipatu behar da sustapen zaharretako batzuek dagoeneko igaro dutela babes publikoko etxebizitzaren kalifikazioa zuten epea. Horrek aukera ematen du errenta tarte berriak ezartzeko, diru sarrera handiagoak lortu ahal izateko alokairuko etxebizitza babestuen sustapena finantzatzeko.

2026. urtean, Infernua eremuko A.A.I.II.13/IN.01 egikaritze unitatean plangintzak aurreikusitako babes publikoko etxebizitzaren eta zuzkidura ekipamenduen multzoa sustatzeko eta garatzeko lehiaketa lizitatuko da.

2026. urtearen amaierarako, halaber, Alde Zaharrean (Kanpandegi 2) adinekoentzako 15 zuzkidura bizitoki berri eraikitze lanak amaitzea aurreikusten da.

Era berean, 2026an amaituko dira María Dolores Goia plazako 1etik 6ra bitarteko eraikinetan begiratokiak ordeztzeko eta fatxadako eta estalkiko elementu puntualak konpontzeko lanak, eta Zarategi pasealekuko 84-94 eta Mons pasealekuko 143-145 zenbakietako estalkiko eta inguratzaileko fatxaden eta irisgarritasunaren hobekuntza energetikorako lanak esleitu dira.

Erabili beharreko mailegu berriak kontuan hartu gabe, Erakundeak 2025. urtearen amaieran finantza erakundeekin duen zorraren bilakaera hurrengo taulan ikus daiteke. 53 milioi eurora iristen den zorra Donostiako Udalak osorik bermatzen du.

Urteak	Amortizazioa	Dirulag. gabeko	Diruz int. lagundutako int.	Guztira orokorra
2026	5.890.827,94 €	555.319,13 €	1.111.815,07 €	7.557.962,15 €
2027	5.704.219,28 €	478.478,39 €	999.713,84 €	7.182.411,50 €
2028	5.439.452,86 €	409.378,54 €	893.882,33 €	6.742.713,72 €
2029	5.508.213,04 €	372.544,02 €	768.195,07 €	6.648.952,13 €
2030	5.255.550,07 €	351.070,53 €	619.440,32 €	6.226.060,92 €
2031	4.058.787,93 €	378.943,61 €	457.520,06 €	4.895.251,61 €
2032	2.573.987,55 €	315.085,38 €	404.344,49 €	3.293.417,42 €
2033	2.398.274,14 €	265.906,55 €	370.020,04 €	3.034.200,73 €
2034	1.945.766,53 €	218.749,69 €	337.778,73 €	2.502.294,95 €
2035	1.432.991,44 €	209.284,49 €	291.467,28 €	1.933.743,21 €
2036	1.269.156,21 €	204.070,05 €	252.151,60 €	1.725.377,86 €
2037	1.171.637,58 €	173.731,48 €	233.443,35 €	1.578.812,40 €
2038	1.193.016,09 €	143.106,19 €	214.549,09 €	1.550.671,38 €
2039	1.147.297,07 €	266.881,93 €	93.575,97 €	1.507.754,98 €
2040	1.025.126,98 €	298.003,72 €	35.912,85 €	1.359.043,54 €
2041	752.000,55 €	268.771,15 €	27.939,90 €	1.048.711,60 €
2042	770.713,79 €	265.081,52 €	7.215,89 €	1.043.011,19 €
2043	805.822,93 €	229.972,34 €	6.528,98 €	1.042.324,25 €
2044	842.565,75 €	193.229,55 €	5.835,27 €	1.041.630,57 €
2045	879.890,45 €	157.264,73 €	2.655,32 €	1.039.810,49 €
2046	919.482,00 €	119.033,05 €	0,00 €	1.038.515,05 €
2047	932.635,84 €	76.312,35 €	0,00 €	1.008.948,19 €
2048	824.423,62 €	36.690,16 €	0,00 €	861.113,78 €
2049	302.178,98 €	5.889,20 €	0,00 €	308.068,18 €
2050	29.308,81 €	2.236,59 €	0,00 €	31.545,40 €
2051	30.384,52 €	1.160,87 €	0,00 €	31.545,39 €
2052	15.607,96 €	164,75 €	0,00 €	15.772,71 €
Guztira orokorra	53.119.219,90 €	5.996.359,97 €	7.133.985,46 €	66.249.665,32 €

Bestalde, Donostiako Etxegintzak ia 10 milioi euroko zorra du biztantzeko eskubidedunekin.

Alokairuko babes publikoko etxebizitzaren udal parkearen administrazioari dagokionez, muga eguna amaitzear duten errentamendu kontratuak berrikusten jarraitu da. Horren helburua da egiaztatzea etxebizitzak okupatzen dituztenek bete egiten dituztela errentamendu kontratuetatik eratorritako betebeharrak eta etxebizitza bat okupatzen jarraitzeko baldintzak, hala badagokio, alokairua beren sarreretara egokituz. Horren bidez lortu nahi da babes publikoko etxebizitzak benetan behar handiena duten pertsonak okupa ditzatela, baita maizter berankorrek zor dituzten zenbatekoak kobratzea eta berankortasuna murriztea ere.

Puntu horretan, azpimarratu behar da esleipen prozesuak baremazio bidez egiten ari direla, eta horrek alokairuen ondoriozko sarrerak murriztea dakarrela, eskatzaileen errenta baita irizpide nagusia etxebizitzak esleitzeko garaian.

Maizter komunitateen beste erronka garrantzitsu bat da funtzionamendu irizpide uniformeak ezarri ondoren komunitate gastuak kontrolatzen jarraitzea, maizterrek kontzeptu horrengatik ordaindu behar dituzten kuotak ahal den neurrian doitzeko. Izan ere, horrek familia askorentzat lasaitasuna eta berankortasun txikiagoa ekarriko du.

